

ARGIA

Bilboko manteroan aurkako jazarpenak etenik ez

UDALAREN AXOLAGABEKERIAREN AURREAN,
BABESA ZABALTZEN DOA

31-35. orrialdeak



2.886 | 2024 / 09 / 29 | 4,00 €



**"Ahituta gaudenean,
gogoratu nor
izan ginen beteta
geundenean"**

14 | SARA TORRES



**Nafarroako
eszenan jarki ziren
emakumeak, 1980
eta 1990etan**

24 | PUNK ROCK



LARRUN #299
**Iruñeko Erorien
Monumentua: eraitsi
ala mantendu?**



Lagundu euskal kazetaritza independentea ikastetxe guztietara eramaten!

Eskatu zure hezkuntza
zentroko arduradunei **ARGIA**ko
harpidetza egiteko



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | IÑIGO MARTINEZ
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | AINGERU EPALTZA

Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO IRUDIA: DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

DANI BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA



46 | RAIMUNDO EL CANASTERO

Lizarrako runba fusio taldea elkarrizketatu du Ames Arangurenak. Mintzatu dira musika ikusteko moduez, kultur kritika puztuez, Lizarrako jaietan udalaren jarrera salatzen zuten kantuaz eta jaso dituzten erreakzioez...

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Dela klima aldaketa, dela ukrainako gerra, arrakalatu egin da artikoko bake neurtua

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | SARA TORRES

"Desirak ez du berezko objekturik: polimorfoa da, eta desbideratzera jotzen du"

Danele Sarriugarte

24 | KULTURA | MUSIKA | 1980-90EKO HAMARKADAK

Emakumeak rockaren eztanda sugarrean

Olaia L. Garaialde

31 | GIZARTEA | MANTEROEKIN BAT

"Ez dirudi agintariak benetako interesa dutenik manteroen egoera konpontzeko"

Julen Ugartemendia

36 | INGURUMENA

Bero latzaren aurrean hiriak birnaturalizatzeko beharra

Garazi Zabaleta

48 | KULTURA | BRUCE LABRUCE-K 60 URTE

Kulturaren eta zinemaren kontra

Julen Azpitarte


 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno de Navarra  **Nafarroako Gobernua**

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza
Irueta, Olaia L. Garaialde, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa
Olatz Kortza

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze,
Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012
ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruña

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara

Automobil gabeko eguna

Igandean autorik gabeko nazioarteko eguna izan da. Agintariak korriketan ikusi ditugu han eta hemen. Basquetourrek "Euskadi" bizikletaz bisitatzeko nazioarteko erreferentea dela dio, naturarekiko errespetuan. Garraio publikoa egun batez doan jarri dute "Autorik gabeko Europako Eguna" oroitzapen txartela opari. Dena izan da berde eta *green*. Gainerako 364 egunetan, ordea, tunelek, biaduktuek, autobiek, suntsipen handiko trenak eta, oro har, porlanaren hedapenak ez du atsedetik hartzen. Garraio pribatuaren sustapenak erakundeen argi berdea du, kutsaduraren onurarako eta espazio naturalen kalterako. Dirutza publikoak makroeraikuntzetarako bideratzen jarraitzen dute, Osakidetza, zaintza sistema, edo garraio publikoaren sarea bera ere dardarka daudenean.

📍 Ehunka lagunek salatu dute asteburuan Sestao eta Getxo ibarra azpitik lotuko dituen makrotunela. 450 milioiko aurrekontua –printzipioz– duen proiektuaren sustatzaileek onartu dute trafikoa %33 handituko duela. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

🔴 AXIER LOPEZ





Gehiengoa euskal estatuaren alde legoke “adostutako” erreferendumean, gatazkarik sortzen ez badu

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Euskal Burujabetzaren Barometroaren seigarren neurketa aurkeztu dute. Euskal Herriarekiko atxikimendua da nagusi oro har, baina Nafarroan Nafarroarekikoa gailentzen da. Euskara ez dago euskal sentimendua azaltzeko gako nagusien artean, baina gaztelera eta frantsesa dira lehenbizikoa sentimendu espainiar edota frantsesa garatzeko orduan. Herritarren %35,2k egingo luke euskal estatuaren alde eta %26,8k aurka, “onartutako” erreferendum batean, baina %25,6 dago independentziaren alde eta %43 aurka.

Telesforo Monzon eLab Euskal Herri gintza Laborategiak eta EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeak egiten dute Naziometroa. Seigarren neurketa honetarako 1.422 inkesta egin dituzte, 2024ko apirilean.

SENTIMENDU ETA ATXIKIMENDUAK

Euskal Herri osoan, atxikimendu handiena duena euskal herritar sentimendua da (0-10 eskalan 7,8), espainiar eta frantziar sentimenduen gaineratik (6,4). Ipar Euskal Herrian bi nortasunek dute atxikimendu handiagoa (euskaldunak 8,8; frantziarrak

7,6) Araban, Gipuzkoa eta Bizkaian baino (euskaldunak 8,5; espainiarrak 6,1). “Bien arteko alde handiena estatu identitatearekiko atxikimenduan ikusten da. EAEn nabarmen baxuagoa da eta bertan 10eko atxikimendua duten herritarren proportzioa %13,7 da, ordea, Ipar Euskal Herrian %32,6koa da”.

Nafarroan, aldiz, atxikimendu positiboena nafar sentimendua du (8,5), espainiarraren (7,2) eta euskaldunaren (4,8) gaineratik. Nafarroan bada beste datu esanguratsu bat: “Euskal herritar sentimendua zati handi batean kontrakotasun handia eragiten du (%23,2k 0 atxikimendua adierazi du)”.

HIZKUNTZA ETA ATXIKIMENDURAKO GAKOAK

Atxikimendu bat edo bestea garatzeko garrantzitsuenak diren gakoengatik galdetu du Naziometroak, eta hor hizkuntzari ematen zaion garrantzi ezberdina deigarria da.

Herritarren arabera, hizkuntzak dira (frantsesa edo gaztelania) elementu erabakigarriena Frantziaren edo Espainiaren parte sentitzeko (7,8). Ondoren doaz

agiri ofizialen jabe izatea, “Frantzian edo Espainian bizitzea” edo “ohitura eta tradizioak partekatzea”. Aldiz, euskal herritar sentitzeko gako nagusia “nahia” litzateke (8,1), bigarren eta hirugarren postuan daude Euskal Herrian bizitzea (7,9) eta “bertako ohiturak eta tradizioak partekatzea” (7,8), laugarren agiri ofizialak izatea (7,4), bosgarren Euskal Herrian jaio izana (7,3), eta seigarren postuan agertzen da “euskaraz hitz egin ahal izatea” (6,8). Nafar eta ez euskal herritar sentitzen diren nafarrei ere galdetu zaie bere sentimenduen euskarri garrantzitsuenaz, eta 2,3ko puntuazioa du euskaldun izateak.

TAUPADA INDEPENDENTISTAZ

Euskal Herri barnean zein estatuarekin “egoera adostu eta onartu batean” egingo balitz erreferendum bat, herritarren %35,2k egingo luke alde, eta %26,8k aurka. Aldiz, Frantzia edo Espainiatik independentizateaz galdetuta, jarrerak nabarmen aldatzen dira: independentiarekin ados edo oso ados azaldu da herritarren %25,6, baina desados edo oso desados %43.

Ezberdintasun horren zergatiak identifikatzeko asmoz, hiru esaldiren inguruko adostasun edo desadostasunaz egin die galde herritarrei Naziometroak. Lehena, “euskal estatua lortzea ezinbestekoa da, edozein modutan erdietsita”: %53,7 kontra edo oso kontra, %29,4 alde edo oso alde. “Euskal estatuaren alde nengoke, horrek gatazkarik sortzen ez badu” eta “independentismoa ez zait erakargarria egiten” izan dira beste bi galderak: herritarren %66 agertu da ados edo oso ados.

“Aurretik egin diren hipotesiak indartu egiten dira, hau da, independentismoak aktibatzen dituen iruditegiak eta proiektzioak ez dira positiboak jende multzo honetan, eta horrelako prozesu bat modu gatazkatuan ulertzeak edo ikusteak, jende bati atzera eginarazten dio”, ondorioztatzen du Naziometroak. ●



Ezin dute euskara ikasi



UXUE APAOLAZA LARREA

Ama da, Perukoa, eta ezingo luke euskara zerotik ikasten doan hasi, egunkarietan irakurri dugun moduan (gezurra zen): hemen agian bai, gurean udalak bermatzen duelako eskubide hori (Hernani). Etortzen bazait ikasturtea amaitutakoan (etorri zaizkidan moduan), alabarekin udan zer egin dezakeen galdezka, eskolan nahiko ondo ibili arren, andereñoak esan diolako oporretan euskara galtzeko arriskua duela, eta ikasten jarraitu nahi duelako, erantzun beharko diot...

Marokotik iritsi eta pare bat hilabetera etortzen bazaizkit ama-umea zer egin dezaketen galdezka, institutuan hasiko delako eta euskaraz jakin ezean ez duelako ezer ulertuko, erantzun beharko diot...

Udan (udalari esker, ez ezer planifikaturik dagoelako Euskal Herrian) euskaraz nolabait ikasten aritutako ikaslea trenean topatzen badut Hondurastik iritsi eta zazpi hilabetera, eta galdezen badiot zer moduz institutuan, ea zerbait ulertzen duen, nola egiten dituen azterketak, erantzungo dit ezetz, ez duela ezer ulertzen, baina, tira, batzuetan azterketak gaztelaniaz egiten uzteko "mesedea" egiten diotela. Eta hizketan ari garela, galdetzen badit non ikas dezakeen euskaraz, erantzun beharko diot...

Erantzun beharko diet ezin dutela ikasi, ez dagoela ezer beraientzat, eta arbelaren aurrean norbait hizketan ikusten badute, helduren bat, begiratzeko adi, eta egiteko baietz-baietz buruarekin. Eta arbelaren aurrean dagoena kontzientziario hitzaldi bat ematen ari bazaie (*dibersin*, pentsatzen dut) euskara ikastearen beharraz eta garrantziaz, hizkuntza gutxituak gora eta behera (mundu zabaleko euskal etxeetan euskaraz gain entzuten diren horiek, ez?), jasotzeko besoa, eta esateko hizlariari kontuz ibiltzeko, agian guztiz kontzientzia daitekeela, eta euskara ikasi nahiko duela, behar duelako, eta ea beharrak eskubide ez ote diren, ez ote den norbait bere eskubidea urratzen ari. Galde dezala, eta galdetzen diet nik ere hor goikoei, hauteskundera kanpainak behetakoak inoiz ikusi gabe egiten dituztenei: kontzientziatuta gaude, orain zer? Ezin dute euskaraz ikasi.

Utzi jendea kontzientziatzeari, jarri baliabideak. ●



ADUR

Euskara

EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du Donostiako bi udaltzain postutarako euskarazko B2 profila eskatzen zuen lan deialdia. "Euskaldunen eskubideak urratzen dituen" epai berri honen aurrean, hainbat eragilek salatu du "euskaldunen aurkako oldarraldiak" ez duela etenik.

Kutsadura

Billboko Udalak autoak gutxitu nahi ditu erdigunean, aire kutsadurak behera egin dezan. Horretarako, hainbat hiritan abian jartzen ari diren neurri bera hartu du: gehien kutsatzen duten autoei erdigunera sarrera debekatzea. Talde ekologistek neurria kritikatu dute, besteak beste "kutsu klasista" duelako.

Hondakinak

Eusko Jaurlaritzak ez du "inolako arau hausterik atzeman" Ekondakinek Zubietako erraustegitik Artaxoako zabortegira 2022 eta 2023 urteetan bidalitako milaka tona lixibiatuetan. Hala, ez du sozietate publikoa zigortuko, Nafarroako Gobernuak eskatu bezala.

Klaseko zerrenda



ULA IRURETAGOIENA

Irailaren lehenetan, hasierak, nobedadeak eta estreinaldiak: estutxe eta koaderno berria, izena emandako ikastaro edota ekintzetarako taldekideekin lehen enkontrua, aktibitate emanaldi eskaintza oparoa publizitate orrietan edonon, ikasturtearen agenda betetzeko, nork berea konposatuz. Irakaslearentzat, ikasle belaunaldi berria begi eta esku artean. Itsu-itsuko hitzordu batean bezala zititzen gara ikasturtearen lehen klasean irakasleak eta ikasleak. Ezezagunen arteko *kedadan* zirrara urduria hedatzen da gorputzetik, etortzearen denboraldia nola izango ote den galdera erantzunezina soinean, segurtasun faltaren beldurra ernaltzen diren unea.

Lehen aurpegi horiei izena jartzeko, Donostiako arkitektura unibertsitate publikoko euskara klasearen izen-zerrendari begira, hauxe ikusi dut: jatorri katolikoko izen gutxi (Maria, Jesus, Dolores, Begoñarik ez), Ane eta Jon klasiakoak beti, eta natura jatorriko hitz-izen joeraren belaunaldia oraindik ez dela iritsi konprobatu. Euskarazko izendegiko izenen nagusitasuna. Bi izenek begira jotzen dute; bata June eta Chen konbinatzen dituelako eta besteak beste hizkuntzetako hotsa daukalako. Abizenen dagokionez, espainiar eta euskal jatorrikoak kantitate parekoetan berdinduak, eta ez dago europar, afrikar, eslaviar edo asiarrak idazketakorik. Latinoamerikako abizen, izen eta aurpegiak ez dago klasean; beltz arrazako bakarra eta asiarrak arrazako bi. Bestela, zurtasuna eta izen femeninoak nagusi dira. Klaseko alineazioa ozen entzuteko eskatu dugu, bakoitza eroso sentitzen den izendapena besteok jakinaraziz.

Hemen adierazitako erradiografia agian ez da euskal lurraldeko lagin esanguratsuenetakoa, eta ez da helburua ondorio azkarrik ateratzea. Baina harri-garria egin zait nola institutueta eta gazteen tabernetan ikus daitekeen dibertsitatea ez den arkitekturako klasera iristen, arkitekturaren profesioak gizartean oraindik "elite" markaren zantzuak mantentzen dituela kuestionatuz. ●

"Nahi duena izango da"

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Hankartean hau dauka baina berak erabakiko du neska edo mutila den" –guraso aurrerakoen modako esaldia–. Elkarrizketarik ez da sortzen plazan, ea bakoitzaren ustez "neska" edo "mutila" izatea zer ote den hankartean genital bat izatetik harago. Jarrera ireki bat azaltzen du guraso aurrerakoi horrek, "bera nahi duena izango da eta nik onartuko dut". Ume horren nahiak eta izaera kanpoko eraginik gabeak, berezkoak balira bezala. Hain justu gurasook gure haurren izaera eta nahietan eraginik ez bagenu bezala.

Ikerketek diotenez, munduratu berri den haur bat besoetan hartzen dugun lehen momentutik elkarrengatik dugu eta elkarrengana egokitzen goaz: haurra-keinu batzuk gustuko ditugu, atseginak zaizkigu, agian grazia egiten digute, eta hankagorriak perzibitzen du erreazio positiboa sortzen duela gehien maite dituenengan. Aldiz beste keinu, soinu, mugimendu batzuk arraroak zaizkigu, agian desatseginak, edo ulergaitzak, eta hankagorriak gutxienera ezerosotasuna perzibitzen du. Zergatik egiten dute irri sei hilabeteko umeek? Umorea garatu dutelako? Edo irri eginda inguruko arreta lortzen dutelako, imitazioz helduek irri batekin erantzuten diotelako eta haien artean jolas edo komunikazio positiboa sortzen delako? Ez dago gizartetik kanpo hazitako umerik, ez nortasuna adierazteko gizartetik kanpo garatutako modurik.

"Berak nahi duena izango da", ados, demagun "barra libre" bat daukagula gure etxeko paradisuan, edo arropategi amaiezin bat umeak uneoro nahi duen *outfita* aukeratu dezan bere barrena adierazteko. Gurasook erlaxatzen bagara eta une batez erantzuten baditugu bakoitzak plazara ateratzen duen kamisetako aldarria eta bere etxearen bertsio ofiziala –"gureak lehen egunetik eta beti gau osoa egin du lo" eta tar-tar-tar–, bakoitzak gure buruari aitortu diezaiokegu gure ondorengoen zein hautuk edo haien izaera adierazteko zein moldek egiten diguten atximur sabelean. Atximur horrek gure buruaz hitz egiten digu, gure nahiez, gure uste eta sinesmen sendoenez, gure beldurrik larrienez... Jende "matxista" edo "normatibo"en atximurra erraz seinalatuko genituzke: "Bere alabak galtzak, ile motza, jarrera ausarta eta lotsagabea, ekimena, kirolerako anbizioa izatea gaizki darama, begira nola eragiten duen guraso horrek gaztetxoarengan, erreprimitzen, gizarteko araua indartzen eta erreproduzitzen".

Baina ARGIA ez dugu jende horrek irakurtzen. Jende kontzientziaduna gara, generoaz hausnartu dugu, edozein pertsonak, hankartean edozein genital izanik ere, edozein aukera egin ahal izan dezan ari gara eguneroko lanean. Beraz? Guri ez digute gure ondorengoen erabakiek eta izaera islatzeko moduek atximurrik sortzen sabelean? "Barra eta arropategia libre, maitia"? Alabak beti arrosaz eta gorputza markatuz jantzi nahi duenean ere bai? Semeak egun osoa futboleak ematen duenean ere bai? Alabak flekiloa eta melena gero eta luze eta lisoagoa daramatzanean ere bai? Semea ahoz beharrean beste umeekin kontaktu bidez erlaxatzen denean ere bai, edo ahozko adierazkortasun kamutsa eta zabarra duenean ere bai? "Barra libre, maitia", baita genero arauak eta Disney-k eta gizarte matxista normatibo honek bultzatutako horixe aukeratzen duzanean ere?

Atzerakoitzat ditugun pertsonen haien seme-alabei uneoro genero araua exigitzen dietela uste dugu. Baina gure burua aurrerakoitzat dugunok gure seme-alabak uneoro genero arautik irtetea txalotzen badugu, gure etxean arau bat sortzen ari gara. Biak dira arau, eta txarrena da biak dabilzala esterotipo edo marra gorri beraren bueltan. Sabelean sentitzen ditugun atximurra aukera paregabeak dira heldu bakoitzak gure izaera, sinesmen, beldur eta abarrez hausnartzeko. Onartzen al ditut genero adierazpide guztiak? Zeintzuk jartzen naute urduri? Benetan barra libre eta arropategi amaiezina guztiontzat eta aniztasuna nahi baditugu, heldu bakoitzak badugu lana, genero adierazpide guztiakin adiskidetzen. Gizarteko genero arau hegemonikoa jarraitzen duten adierazpide horiekin ere bai, maitia. ●

2028

urtetik aurrera, Microsoftek berriz ere martxan jarriko du Three Mile Island zentral nuklearra, adimen artifiziala elikatzeko (adimen artifiziala integratzen ari dira ofimatika tresnetan, Azure hodeian, Bing bilatzailean, GitHub-en garapen tresnetan...).

2.500

euroko isuna ezarri die Ertzaintzak Aiaraldeako sei laguni, iazko greba feminista orokorragatik. "Mozal legea" baliatuta jarri ditu Poliziak isunak. Tubacexen eginiko piketegatik izan dira zigor gehienak.



546

euro ordaintzen du gazte askok logela batengatik Donostian. Espainiako Estatuan, soilik Bartzelonan da garestiagoa logela bat alokatzea, Pisos.com-en datuen arabera.

“Demokratikoki hautaturiko Venezuelako lehendakari legitimoa da Edmundo González”

EUROPAKO PARLAMENTUA

2024-09-19



“URTEOTAKO DESADOSTASUNEK GAZTETXEEN ERALDAKETARAKO GAITASUNA ETA ERAKARGARRITASUNA MURRIZTU DUTE”

MARTIN URKIAGA ETA ARRATE MENDIZABAL

Euskal Herri mailako topaketak antolatu dituzte hainbat gaztetxe eta gazte asanbladarako gazteek urriaren 19an, Leitzan. Antolatzaileetako birekin hitz egin du ARGIAk.

ARGIA.EUS (2024-09-23)

“Komunikazio zailtasunak dituzten pertsonen beharrak ia ezezagunak zaizkigu”

Komunikazio-bitartekarien I. topaketak antolatu dituzte Gasteizen. Zailtasunak dituzten pertsonen beren gaitasunak garatu ditzaten laguntzen dute bitartekariak.

ARGIA.EUS (2024-09-23)



EHUn euskaraz ikasi nahi eta gaztelaniaz egitera behartuta

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Filosofiako laugarren mailan, EHUn, nahitaez ikasgairen bat gaztelaniaz hautatu behar dute ikasleek, ez baitago nahikoa ikasgai euskaraz. Gaztelaniazko ikasleek ez dute arazo hori, eta bitxia da, euskarazko ikasle gehiago dagoelako gaztelaniazkoak baino. Beste karrera batzuetan ere salatu dituzte antzeko kasuak. “Ez digute uzten jakintza gure hizkuntzan garatzen”.

Ikasgai guztiak hautazkoak dira Filosofia karrerako laugarren mailan, baina ez dago nahikoa hautazko euskaraz, kreditu guztiak osatzeko. Bai ala bai ikasgairen bat gaztelaniaz egitera derrigortuta daude euskaraz ikasi nahi dutenak, eta esan-guratsua da, gaztelaniazko ikasgai horietako batzuetan izena eman duten erdia baino gehiago ikasle euskaldunak baitira.

Azalpenak eskatu ditu Aimar Jusue Filosofia ikasleak, eta irakasleak erantzun dio ez dagoela nahikoa ikasle euskarazko ikasgai berri bat sortzeko, baina horren atzean dagoen tranpa agerian utzi du Jusue: soilik euskarazko ikasgaiak eskainiko balituzte, nahikoa ikasle egongo litzateke, baina gaztelaniazkoak eskaintzen dituzte, badakitelako euskarazko ikasleek gaztelaniazko ikasgaietan ere emango dutela izena. Kontrakoa ez da egiten, gaztelaniazko nahikoa ikasgai ez eskaini eta gaztelaniazko ikasleek euskarazko ikasgaiekin osatu behar izatea ikasturtea, alegia ez dituzte gaztelaniazko ikasleak derrigortzen euskarazko hautagai bat hartzera.

Magisteritzan, Zuzenbidean, Gizarte Hezkuntzan... ere gertatzen dela dio Jusuek, ikasle euskaldunek momenturen batean edo bestean gaztelaniaz ikasi behar izatea. Ezagutu duen praktika bat nabarmendu digu: euskaraz eta gaztelaniaz, bi hizkuntzatan ematen den ikasgai batean, euskaraz izena eman duten ikasleak behartzea gaztelaniazkoan matrikulatzera, nahikoa ikasle egon dadin gaztelaniazko klasea atera ahal izateko. “Helburuak ez al luke izan behar euskaraz ahalik eta ikasgai eta ikasle kopuru handiena aritzea, euskarazko klasea murriztu beharrean gaztelaniaren mesedetan?”, kexu da Aimar Jusue.

“Euskaraz eta euskaratik egindako eduki eta arloak indartzea eta elikatzen jarraitzea ezinbestekoa da, kultura eta jakintza gure hizkuntzan zabaltzen segi nahi badugu”, nabarmendu du, “baina halako jarrera eta erabakiekin kontrakoa egiten dute: gure hizkuntza txikitzen goaz, euskaraz eduki gehiago sortzeko aukera murrizten. Saiatzen dira irudikatzen euskararen arazoa euskaraz ikasi nahi dugunona baino ez dela, baina EHuko kasu hauen guztien atzean injustizia epistemiko bat dago, gure hizkuntzan jakintza garatzen uzten ez diguna”.

IEPE euskara taldeko militantea da Jusue (Ibaetako Euskaltzaleen Plaza Euskarari), eta hezkuntza arloan dauden euskara taldeetakoren batean parte hartzera animatu ditu ikasleak. ●



TEKNOLOGIA

Zoritzarrak



DIANA FRANCO EGUREN

Domeka euritsu honetan, arduraz bizi dugu munduan dauden gatazka askotarikoak direla ezinegonean bizi diren pertsonen zoria. Urrunetik, badirudi boterera jokatzeko duen hainbat agintariren eskuetatik ezin garela askatu. Beti bere burua babestu behar duen sumoarekin bizi da gizaki asko munduan. Beharbada, hori da zenbait botere ereduren azken helburua, klase xumeetan ezinegona landatzea.

Azpaldi, egun hauetan Libanon gertatzen ari dena hobeto ulertzen lagundu didan hitzaldi batean izan nintzen. Gisa Elkarteoko Mainer Likonak gazteei zuzendutako hitzaldia zen. Antenekin zein Internet bidezko datuekin, gailuen bidez, batez ere mugikor adimentsuen bidez, pertsonen kokalekua ezagutzeko erabiltzen den teknologia azaldu eta erakutsi zigun. Zientzia fikzioa iruditzen zitzaieen gazteei, baina txundituta geratu ziren Mainerrek euren gailuak kokatzen zituztean, euren informaziorik izan gabe. Hitzaldi horretan ulertu nuen mugikorrek bi bideko komunikazioa egiten dutela inguruan dauden antenekin, antena eta mugikorra elkarriketa batean baleude bezala, eta horrek dakarrela modu zehatzean gailuak tringulatzeak aukera.

Agian horregatik, Mossad Israelen kanpo inteligentzia-agentziak teknologien inguruan duen ezagutza handia ikusita, Libanoko Hezbollah-ko agintariek erabaki zuten euren artean modu seguruagoan komunikatzeko alternatiba bat bilatzea. Hala, beeperrak eta antzeko teknologia duten gailuak erabiltzen hasi ziren, gailu horiek bide bateko seinalea egiten baitute, eta baliteke ere sare propio bat sortu izana, triangulazioa zailduz. Baina gaiztoa izateko ere irudimena behar da, eta komunikabide ugaritan ikusi, entzun eta irakurri dudanez, gailuak aurretik manipulatuak izan ziren leherkariak baterietan txertatuz, eta horiek eztanda egiteko agindua zelan eman den oraindik ez da argitu. Gailuen bateriak lehergai bilakatu badaitezke, zelan eragingo dio horrek gure bizitzetan darabiltzagun gailuei? Ziur nago aldaketak etorriko direla. ●

Inoiz ikusi gabeko atentatuak Libanon. Nola eta zergatik?

AXIER LOPEZ

1 2 hildako –tartean bi adingabe– eta 3.000 zauritu inguru, hilaren 17an. 26 ordu geroago, beste 20 hildako eta 450 zauritu baino gehiago. Bi leherketa masibo eta koordinatu izan dira, lehena milaka pertsona-bilagailutan eta bigarrena ehunka walkie-talkitan. Mundu guztiak jakin badakien arren Israel sarraski berri honen atzean dagoela, gobernu sionistak ez du hortaz ezer adierazi eta "gerraren fase berri baten hasieran gaudela" dio Libano bonbardatzen hasi bitartean. Beiruten 37 hil dituzte hilaren 21ean.

ISRAELEN GAITASUN MILITARRA ETA MUNDUAREN IKARA

Otsailean, Hezbollahk, Hassan Nasrallah liderraren beraren hitzetan, mugikorrek saihesteko eskatu zien bere jarraitzaileei, atzerriko inteligentzia zerbitzuek kontrola saihesteko. Adimendun telefonoen ordez, testu-mezuak eta alarmak jatzeko pertsonen-bilagailuak erabiltzen hasi ziren.

Oraindik argitzeke dago, non, noiz eta nola egin duten, baina sionistek lortu zuten Libanora bidean ziren bilagailuak –eta walkie-talkieak– nahieran manipulatzea. Ustez, Israelgo zerbitzuek non-bait aparatuak desmuntatu eta litiozko ioien jatorrizko baterien ordez lehergailuak eta perdigoiak barnean zituzten beste bateria batzuk jartzeko, ahalik eta kalterik handiena sortzeko, baina pisua gainditu gabe. Aparatuen elektronika manipulatu zuten leherketak urrutitik aktibatu ahal izateko, bilagailuetan kodetutako mezu jakin bat jaso ondoren.

Hilaren 17an mezu hori bidali zuten, eta, handik gutxira, eztanda egiten hasi ziren. Eta, atentatuaren ezaugarriek oraindik mundua txundituta zutela, hurrengo egunean, berriz ere antzeko beste eraso bat burutu zuten, ehunka walkie-talkie leherrarazita, Japoniako "ICOM" markakoak, IC-V82 modelokoak. Baina enpresak azpimarratu duen be-



zala, eskuko irrati modelo hori itsasoz bestaldera esportatu dute masiboki: 160.000 unitate inguru 2004 eta 2014 artean, eta hala, momentuz, ezin dute zehaztu haien jatorria.

Aurretik historian inoiz ikusi ez diren eraso motak dira, entitate sionistaren gaitasun teknologiko, infiltrazio gaitasuna eta koordinazio maila apartagatik. Baina, horrek ez du ezkutatu behar indarkeria-ekintza masibo eta indiskriminatua izan dela, sionisten egungo logika genozidarekin bat egiten duena. Laster beteko du Gazako genozidioak urtebetea. Zerrendan dagoen pertsona oro helburu militar bihurtu dute, bere baldintzak, adina, jatorria eta abar alboratuta. Eta sobera frogatu dutenez, logika genozida hori ez dute soilik Gazan aplikatzen.

Biktima guztiak ez dira Hezbollahko kideak. Larrialdi-zerbitzuek eta beste-lako boluntarioek ere bilagailuak erabiltzen zituzten, adibidez Beiruteko Unibertsitate Amerikarraren Ospitalean, ohar batean adierazi dutenez. Ez ziren Hezbollahren tresna eskusibo bat. Ho-

rregatik argi esan behar da: erasoak indiskriminatuak izan dira. Leherketak askotariko leku publikotan gertatu dira: kalean, dendetan, autoa gidatu bitartean, garraio publikoan... Ala hil dituzten bi adingabeak ere Hezbollahko "terroristak" ziren?

ESKUAK ZIKINDUTA, BAINA LIBRE

Israelek astakeria berri hau egin du arrazoi simple bezain funtsezko bategatik: inpunitatea. Egiten dutena egiten dutela, ez dute ondorio praktikorik jasoko, ohiko gaitzespen-adierazpenetatik haratago. AEBen eta bere nazioarteko mariatxien baldintzarik gabeko babesa dute. EB ezgauza da, eta European pisu gehien duten estatuen lankidetzeta lotuta du. Arabiar gobernu gehienak 'zipaioak' dira, eta gehienek besoak gurutzatuta dituzte ustez babesten omen duten "arriba-anaia palestinarren kausaren" aurrean. Eta NBERen ezintasuna agerikoa da nazioarteko araudia errespetarazi eta zigor eraginkorrak ezartzeko. Finean, Israelek halakoak egiten dituzten diotelako. Utzi egiten diogulako. ●

DELA KLIMA ALDAKETA, DELA UKRAINAKO GERRA, ARRAKALATU EGIN DA ARTIKOKO BAKE NEURTUA

Artikoari begira jarri eta XXI. mendeko erronka eta arazo handienez hitz egiten bukatzen dugu aski fite: geopolitika, edo hobeki erran gerlak eta klima larrialdia. Horretaz kontziente, Artikoko Batzarraren baitan egin ahala eraikitzaile eta bakezale izateko jarrera izan dute betidanik estatu-kideek (AEBak, Kanada, Errusia, Norvegia, Finlandia, Islandia, Suedia eta Danimarka). Baina Ukrainako gerraz geroztik Errusiarekilako kooperazioa moztu dute beste zazpiek, erakundea geldian utzita. Klima larrialdiaren esparrura arte sendi da Artiko Batzarraren geldialdia, eta arlo horretan inor ez da irabazle.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Artikoan gertatzen dena ez da Artikoan gelditzen", errana ohikoa dute munduaren iparreko eskualdea ongi ezagutzen dutenek. Klimaren arloaz aritzerakoan erabili ohi dute esaldia, baina azkenean, besteetarako ere balio du. Demagun, geopolitikarentzat. Klimari dagokionez, munduaren eta bizidunon geroa Artikoko orekari lotua delako, eta geopolitikoki, berriz, Errusia eta AEBak elkarrekin kooperatu beharrean jartzen dituen espazio horretako harremanak ahal bezain tentsio gutikoak izatea ere komeni zaigulako gurtioi.

21 milioi kilometro koadroko espazio zuri hori ezinbestekoa dugu ekologikoki, besteak beste, berotegi efektua saihesteko bidean: izotzean islatzen diren eguzki-izpien %80 zuzenean islatzen dira espaziora. Hala, urtzean, ozeanoen ura dago, eta orain arte islatzen ziren izpiek ozeanoa zuzenean berotzen dute; modu horretan berotze globala areagotu eta mundu mailako orekak desorekatzen dira –adibidez, itsaslastarren zirkulazioan eta ur hotzen eta beroen mugimenduan ardurua handia du Artikoak–. Nahikoa ez balitz, izotzen urtzeak orain arte itsas zolan eta lurpean metatua den metanoaren isurketa eragiten du. Metanoa berotegi efektu handiko gasa izanik, horrek ere klima aldaketa larriagotzen duelarik. Hori horrela, XXI. mendeko arazo larrienen artean dugu Artikoaren

urtzea, abiadura eta kantitate handian gertatzen ari zaiguna gainera: gainontzeko espazioak baino bi aldiz lasterrago berotzen da Artikoan, GIEC Klima Larrialdiari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen arabera. Pentsa, Groenlandiako izotz-geruzaren gesaltzea atzera bueltarik gabeko puntura heldua omen da: 532.000 milioi tona izotz desagertu zaizkio 2019an –segundu bakoitzean sei olinpiar igerilekuren heina!–. 2020an *Nature Climate Change* aldizkariak plazaraturiko *Sea-ice-free Arctic during the Last Interglacial supports fast future loss* [Azken glaziazioarteko itsas izotzik gabeko Artikoak galera azkarra eragiten dio etorkizunari] ikerketak ondorio kezagarria dakar: baliteke 2035erako erabat desagertzea Artikoan bankisa. "Neurri drastikoak bideratuz gero ere, tendentzia alderantzizkatzea gertagaitza edo ezinezkoa zaigu", irakurri daiteke txostenean. Sasioen erritmoari segi, martxoan du espazio izotzu gehiena –15,5 milioi kilometro koadro inguru– eta gutien irailean. Arazoa da geroz eta gutiago duela izozturik: urtero 70.000 kilometro gutiago, betirako galduak.

Baina nolakoa den giza espezia: arazo eta kezka iturri izan beharrean, klima larrialdiaren oinarrian ditugun petrolio-erazketa berriak kausitzeko aukera gisa ikusten du atzera bueltarik gabeko desmasia hori. Mundu mailako petro-

lio erreserben %13 eta gas naturalen %30 hurbil gordetzen delako Artikoan. Litioa, kobaltoa, tungstenoa... zer erranik ez lur horietan gordetako mineralei buruz. 230 erazketa egitasmo daude abiatuturik eta beste 400 bat dituzte abiatzekotan, Reclaim Finance GKEren arabera. 2021eko zenbakiak dira, gaur egun gehiago badira, horren aurka egiteko politika fermurik ez delako adosten.

Berez esplorazio eta ustiapen horiek ez dira berriak, baina izotzaren urtzeak areagotu besterik ez du egiten joera. Orain arte ezinbestekoa baldin bazitzaie Artikoan ahal bezain guti hunkitzearena, badirudi helburu horrek geroz eta pisu gutiago duela Artikoan Batzarraren baitan. Alta, 1991n izenpeturiko *Arctic Environmental Protection Strategy* (Artikoan ingurumena babesteko estrategia) adierazpena dugu erakundearen oinarrian, ingurumena zaintzeko helburua finkatzen zuen adierazpen inportantea. AEBak Kanada, Errusia, Norvegia, Danimarka, Islandia, Suedia eta Finlandia dira erakunde horren parte, baita lekuko autoktonoen ordezkartza bermatzen duten sei elkarte ere. AEBak eta Errusia mahai berean eta helburu berekin aitzinarazi beharra ez da erraza, baina gutiago ala gehiago kausitu dute bidea, nolazpait ardurak horretara beharturik. Baina 2022ko otsailean abiatuturiko Ukrainako gerrak bertaraino eragin zuen...



ARAZOAREN PAREAN BEGIAK ESTALTZEN

Artikoa babesteko xedez, trantsizio ekologikoaren alde egin beharrean, izotzen urtzeak dakartzkien aukera ekonomiko berriei begira dira Artikokoaren parte diren zortzi estatuak: mundu mailako salerosteeekin segitzeko itsasbide berrien garapena eta petrolio eta gas naturalen erauzketa berriak.

UKRAINAKO GERRAZ GEROZTIK HARREMANAK IZOZTURIK

Erakundearen presidentetza hartu berri zuen Sergei Lavrov errusiarrak bilera batera deitu zituen guztiak 2022ko martxoan, baina ez zitzaizkien azaldu. Artikoko Batzarretik Errusia erabat baztertzeko erabaki politikoa hartua zuten eta gaur ere postura berarekin dabilta. Erantzun gisa, erakundearen finantzaketa gelditu du Moskuk. Nola ez, azken bi urteetan Finlandia eta Suedia NATOko kide bihurtu izanak ez ditu harremanak erraztu: batzarrereko estatu-kide guztiak NATOren parte ditu orain Errusiak.

Klima dugu, beste behin, bazterketak kaltetuen artean: harremanak izozturik, Errusiako daturik ez dute gehiago klimaren bilakerari buruzko jarraipen zientifikoa egiten dabiltzanek. *Nature Climate Change*k alarma piztu zuen urtarrilaren 22ko txostenarekin: "Munduko eskualde honetan gertatzen ari diren aldaketei buruzko ezagutzak –jada erabat kezka-

rriak– gero eta desitxuratuagoak daude". Artikokoaren erdia baino gehiago Errusiaren parte izanik, datu horiek ezinbestekoak dituzte klima larrialdiaren azterketarako. Are gehiago, ikusirik Errusiak ondoko urteetarako marrazturiko garapen estrategia –Asiara arteko Iparreko itsasbidearen garapena; lehengaien erauzketak eta base militarren biderkapena–.

ZIGORREI AURRE EGITEKO: ASIARA DARAMAN BIDE BERRIA

Errusiaren eta Ukrainaren arteko gerraren testuinguruan, Mendebaldeak Errusiari jarri zigorrei aurre egiteko posibilitatea ematen dio Moskuri Artikokoaren urtzeak. Hain zuzen, Europa eta Asia lotzen dituen Iparreko itsasbidea geroz eta erabilgarriagoa delako. Gaur egun, uztailetik urri bukaera arte da erabilgarri eta itsasontzi izotz-hausleei esker tarte hori ahal bezainbat luzatu nahian dabilta konpainiak. Mendebaldean galdutako merkatuak Asiakoekin ordezkatzeko estrate-

gian, bide hori anitzez interesgarriagoa zaio: laburragoa, merkeagoa eta gainera, itsas-lapurreta gutiagorekin. Kasik bide guztia Errusiaren uretan izanik, berak du kontrola, eta ezin daiteke Moskuren baitan gabe baliatu; jakinik gainera, itsasontzi izotz-hausle errusiarrak bakarrik erabili daitezkeela. Hots, oraingoz, erabateko kontrola du Errusiak.

Hala ere, inoiz ez da Suezko kanalaren heinekoa izanen: 2025 urterako 160 milioi tona garraiatzeko helburua jarririk du Moskuk, baina Suezetik gaur egun 1.410 milioi tona dira pasatzen urtean. Eta eskerrak. Eskerrak lekuko ingurune eder bezain bortitzari: icebergen mehatxupean eta etengabeko lanbro artean, bideak arriskutsua izaten segitzen duelako. Espero dezagun arrisku horrek diru-goseari bidea moztea luzaz, demagun, marea beltz bat gertatuz gero izugarri zaila genukeelako aterabidea. Baina hori ez dute gogoan izotzen urtzea petrolio gehiago lortzeko aukera gisa daukatenek. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Sara Torres

POTENTZIA ETA DESIRA



DESIRAK EZ DU BEREZKO OBJEKTURIK: POLIMORFOA DA, ETA DESBIDERATZERA JOTZEN DU



Poesia-irakurraldi bat, jendaurreko elkarrizketa bat eta sei orduko tailer bat eskaini zituen orain bi aste Sara Torres idazle eta pentsalariak Gasteizko Artiumen, Trama programaren barruan. Ondoren, eskuzabal eta gertuko hitz egin zidan bere lanari buruz, igande arratsalde eguzkitsuan. Torresek ezagun du oinarri teoriko-akademiko sendoa; bere hitzetan, sormen-jarduna "osatze" balio izan dio.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DOS POR DOS / ARGIA CC BY-SA

Aspaldi da poesia argitaratzen duzula, baina azken bi urteetan oso ezaguna egin zara zure nobelei esker. Nola bizi izan duzu?

Fikzio bat iruditzen zait. Nire gorputzak ez du inondik inora uste hau erreala denik, eta are gutxiago egonkorra. Aldi berean, oso ondo sentiarazten nau, laguntasun berriak iristen zaizkidalako, jada ni maitatzeko prest daudenak, aurrez irakurri edo entzun nautelako, eta hori sekulariko pribilegioa da. Baina ikusgaitasunaren makinariak erabateko ikusgaitasunera

edo desagerpenera jotzen du, bietako bat: hedabide guztiak dabilta arreta lortzeko borrokan, eta izenak ustiatzen dituzte, erabilgarri zaizkien bitartean; ostean baztertu egiten dituzte. Beraz, bertigo handia eman dit urte hauetan guztietan egindako lana alferrik galtzeak ikusgaitasun hori inbaditzailatzat hartu delako, edo une batean ikusgaitasun gehiegi izan dudalako.

Neurririk hartu duzu?

Batetik, ez dut parte hartu inpaktuarekin zerikusia zuten proposamenetan, eta

gero argitaletxearekin hitz egin dut desagerpen-boladak adosteko. Promozio handia egin dugu *La seducción*-ekin, eta orain beharrezkoa da ez egotea, edo beste modu batean egotea, hurbileko lekuetan bakarrik. Beti egon naizen lekuetan.

Psikoanalisiak pisu handia du zure proposamenetan.

16-17 urterekin hasi nintzen psikoanalisi irakurtzen, eta gero masterrean heldu nion berriro, Londreseko King's Collegen, irakasle baten bidez: Hector Kollias. Psikoa-



Sara Torres

XIXON (ASTURIAS, ESPAINIA, 1973)



Pentsalaria eta idazlea. Oviedoko (Asturias) unibertsitatean eta Londreseko Queen Mary Unibertsitatean ikasi zuen. Azken horretan egin zuen tesia, kuir teoria eta psikoanalisi uztartuz. Poesia idatzi izan du batez ere, baina bere bi nobelek oihartzun zabala izan dute: *Lo que hay* (2022) [Dagoena] eta *La seducción* (2024) [Sedukzioa]; biak ere Reservoir Books-en eskutik argitaratuak. Saiakera bat eta pieza eszeniko bat lantzen ari da orain.

nalisia kuirtu duten autoreak ekartzen zituen, eta hala ezagutu nituen Teresa de Lauretis eta psikoanalisi bolleroa. Erabateko zentzua zuten niretzat.

Heterosexualitatea gizateriaren gai gorentzat hartzen da, eta hortik irten nahi nuen. Psikoanalisiak erakusten digun oinarrizko gauza bat da —batzuetan ahazten zaiguna psikoanalisiaren korronterik patriarkalenaren eraginez— desirak ez duela berezko objekturik, perbertsoa eta polimorfoa dela. Gero hezi egiten da, helburu sozial eta kultural jakin batzuetara zuzentzen, baina desirak berezkoa du desbideraketa eta polimorfotasuna. Eta printzipio hori aliatu erabatekoa iruditzen zait kuir ikasketentzat.

Pentsamenduaren aldetik interesatzen zait psikoanalisi. Ez dakit klinika psikoanalitikoan sinesten dudan, ez dakit dibanean sinesten dudan, ez dakit gorputzen arteko distantzian sinesten dudan. Ni ez naiz ezeren jarraitzailea, ezta ordezkaria ere, ondorioz ez dut azalpenik eman behar, ez diot ezer zor inori. Adibidez, orain jada ez dut unibertsitatean lan egiten, eta plazer itzela sentitzen dut ez naitzelako inoren ordezkaria eta aske naitzelako, artista gisa eta pentsalari gisa, okertzeko, nahasteko. Okertu naiteke beste bide batzuk topatzeko, nire gainera dagoen inori dezepziorik eragin gabe. Eta hori gustatzen zait.

Esango nuke zure lan guztia zeharkatzen duela ez-binarismoaren aldeko apustuak.

Sistema binarioa informazioa prozesatzeko sistema bat da eta etengabe erabiltzen dugu esanahia sortzeko prozesuetan; ulergarria da, txikitatik sartu baitigute, tresna hori ematen zaigu pentsatzeko. Orduan oposiziozko pentsamendu horretara jotzen dugu. Uste dut Brigitte Vasallo esan zuela konfrontaziozko jarri hori dela elkarrizketa publiko guztietan eskura egoten dena. Aldiz, ezer biralizatzeotan, beste zerbait biralizatu beharko genukeela uste dut: oposiziozko pentsamendua, konfrontaziozkoa, ez dela tresna ez sofistikatua ez polita errearen dimentsioa lantzeko, eta ez dugula inongo arazorik konponduko gauzen alde edo kon-

tra jarrita, are gutxiago gure kulturaren, non informazioa bizkor-bizkor zabalitzen baita, eta eskatzen baitzaizu alde edo kontra agertzea zer gertatzen ari den ulertzeko gai izan aurretik ere.

Zer bilatu behar genuke?

Elkarrekin pentsatu behar dugu zer beste posizio har ditzakegun pentsamendu kritikoa garatzen segitzeko baina oposizionala izan gabe. Nola bilatu pentsamendu kritikoa, ez-oposizional eta samur bat, hau da, elkarrizketan inplikatzeko diren gorputzak bastera jotzen duen pentsamendu bat, hartara gorputzak ausart daitezkeen elkarrizketan inplikatzera, zeren bestela elkarrizketan inplikatzeko diren bakarrak dira edo gorputz kamikazeak edo pribilegioa duten gorputzak eta badakitenak borrokan sar daitezkeela, egitura oso batek babestuko dituelako gero. Baina beste gorputz batzuk halako desoreka batean gaude, putzura eror gaitezke edozein unetan. Orduan, nola egin gorputz horiek ere gai izan daitezkeen parte hartzeko eta okertzeko, eta, batez ere, nola lor dezakegu gorputzak zabalik egotea, norbere posizioan gotortuta egon ordez, eta, hala, elkarrizketan parte hartzeak gu eraldatu ahal izateko.



Ulegarria da gorputz batzuk defentsiban jartzea, ezta?

Joera defentsiboak gorputzaren jakintzaz hitz egiten digu: gorputza maiz sentitu da arriskuan, eta erreakzio bat ateratzen zaio automatikoki, baina beti ez da erabilgarria. Horrek ez du esan nahi gorputza oker dabilenik, gorputzak dakiena daki, eta behin eta berriro saiatzen da dagoen horretatik irteten. Baina horren aurrean badago pribilegio bat: ez dator emanda, baina denon artean landu dezakegu, eta besteei eskaini. Izan ere, samurtasunezko testuinguruak sor ditzakegu, defentsibara sartzen den gorputzak tentsioa askatu ahal izateko. Zenbait gorputz etengabe ibili gara gauzak eztabaidatzen, kaltetuta edo irainduta sentitu gara, eta erreta gatoz, ez gatoz hain gozo. Hor, kideok lan garrantzitsu bat egin dezakegu, eta da testuinguruak sortzea non besteari esaten diogun: “matte, ederki gaude hemen, jaitsi, ez da ezer gertatzen”. Elkarri esan behar diogu hori, eta,aldi berean,

Libian, itsasoratu aurreko gauetan, emakumeak eramaten dituzte gela batzuetara eta han bortxatzen dituzte ia guztiak”

defentsibara etortzeko eskubidea onartu behar dugu: ez dira pasio tristeak ezkutatatu behar. Etor zaitezke zure haserrearekin, zure jeloskortasunarekin edo zure egonezinarekin, horrek badu lekurik hemen, baina denon artean ikusiko dugu ea elkarrizketa pasio horren arabera gidatzeak zure bilaketan laguntzen dizun. Eta, jada balio ez dizunean, ba berrantolatatu.

Larunbateko hitzaldian esan zenuen: “Nik ez diot aurre egiten sistemari, nik begirada kentzen diot”.

Sistema heterosexualaz ari nintzen. Beste sistema batzuen kasuan konplexuagoa litzateke.

Bai. [Monique] Wittigekin akordatu nintzen.

Noski. Wittig, niretzat, guztia da. Fun-tsezko abiapuntu bat. Nik esan dezakedan oro berak jada proposatu zituen gauzen lanketak dira. Niretzat oso garrantzitsua da erakustea gerta daitekeela boterea ez desiratzea. Boterea gorputz jakin batzuetan kokatzen duen sistema baten barruan, gerta daiteke ideia horrek zuri inongo flashik ez eragitea. Gerta daiteke botere hori ikustea eta zure begirada beste norabait joatea berez, desira horrek ez zaituelako harrapatzen. Erresistentzia politikoa da interes-gabezia hori erakustea eta, batez ere, behingoz haustea beste mito heterosexual hori, hots, gorputz ez-heterosexualek egokitzeko ezintasunagatik jotzen dutela beste norabait.

Zure kasuan ez da hala.

Sistema heterosexualak fantasia bat sortu nahi du, lesbianek politikoki uko egiten dutela, baina nik ez dut politikoki uko egiten. Nik ez dut batere erakarmenik sentitzen sistema heterosexualaren proposamenarekiko; zero. Ez zait interesatzen. Ez nau seduzitzen; ez egunez, ez gauz. Eta inoiz amorrurik sentitzen baldin badut sistema horrekiko, nire maitaleak ustiatzen dituelako da, zahutzen dituelako, hiltzen dituelako. Zer egiten die nire lagunei? Sistema horren ondorioz, gorputzek gauza arriskutsutzat hartzen dute sexualitatea, nire lagunak traumarekin iristen dira sexualitatez. Horrek sekulako pena eragiten dit.

Dolu erraldoi bat daukat gure sexualitate asko markatuta geratu direlako inoiz ahaztu ezingo dituzten gauzekin, eta halakorik bizi izan ez dutenen kasuan, kaltearen mamuak markatu ditu. Eta indarkeriari buruzko testigantza bat



agertzen den aldiro nire lagun askoren gorputzek berriro oroitzen dituzte iraganeko gauzak, ezin dituzte ahaztu, berriro traumatizatzen dira. Horrek pizten dit sua barrenean. Baina hortik harago, begirada beste norabait joaten zait, eta hor bageaude baten batzuk, elkarrekin gauzak egiten. Eta horrek indar bat sortzen du, aingura-indar bat, beste batzuk erakartzen dituen.

Orainaldi alai, estrategiko eta informatuan sinesten duzu.

Orainean ekitean sinesten dut, eta aliantzetan sinesten dut erabat, kide-tasunaren araberrako aliantzetan. Kide-tasunaren potentzia azkengabea da, alaia delako, baieztapenean eraikitzen da. Gauza asko egiten ari gara, gauza asko eraldatzen. Errotiko paradigma-aldaketa dakar feminismoak. Iraultza bat da, jakintzaren arlo guztietan. Uste dut ospatu egin behar dugula; baieztatu behar dugu zer-nolako ugaritasuna eta potentzia eta proposamenak dauden. Eta, noski, espiritu kritikoari eutsi behar diogu beti, bai barrurantz bai kanporantz. Hori inoiz ahaztu gabe. Feminismoa ez baita alderdi politikoa, ezta futbol-talde bat ere. Iraultza kultural eta zientifiko bat da.

Zure proposamena oso bitalista da: sortzekoa, gehitzekoa.

Wittigek badu gauza itzel bat: bere obran, oldarkortasunak badu lekurik, gorputzak adiskidetu daitezke beren suntsipen-nahiarekin. Gorputzek esan dezakete: nik ez diot honi heldu nahi inolaz ere. Nik behar dut honek su har dezan, berregiteko. Zentzu horretan sormena izan daiteke modu bat loreak haz daitezen, eta kontua ez da lurra erretzea, erreta gera dadin; ongaria alboan daramagu jada, gauzak kentzeaz batera gauzak ereiten ari gara. Ez da erretzeagatik erretzea, baizik eta etorkizunerako emankortasunerako beharrezkoa baldin bada soilik. Erretzeaz gain beste ezer egin nahi ez baduzu, ez joan; eskaintze-korik ez badaukazu, agian ez joan.

Kuir teoria eta psikoanalisi aipatu ditugu, baina harremana duzu beste pentsamendu-ildo batekin ere bai: budismo tibetarrarekin. Izan ere, lankidetzan aritzen zara Kataluniako Casa Virupa komunitatearekin eta Lama Norburekin.

Casa Virupako komunitatearekin eta Lama Norburekin hitz egitea asko interesatzen zait, besteak beste, bizikidetzatza-proiektu komunitario bati eustea



lortu dutelako. Hemen denok aritzen gara adiskidetasuna gora eta adiskidetasuna behera, guztiz maila abstraktuan, edo ikasle-pisuan urtebetez izandako esperientzia aipatuz. Beraz, niretzat oso garrantzitsua da komunitate batzuek kontatu ahal izatea zer dakarren elkarrekin bizitzeak, eta oso garrantzitsua da entzutea, epairik gabe entzutea, ikasteko desirarekin, nahiz eta zuk agian gauzak beste modu batean egingo zenituzkeen. Nik neuk Casa Virupa bat eraiki behar banu ez nuke tresnarik izango horretarako, eta, kasu honetan tresnak tradizio ez-mendebaldar batetik datoz, guk ez daukagun jakintza eta molde batzuetatik.

Zertan zabilta orain?

Saiakera bat prestatzen ari naiz, tesiko aparatua kontzeptualarekin lotua, baina marko akademikotik atera nahi dut: eskuraezintasunetik, aipuetatik eta bibliografiatik. Idazketa-modu bat topatu nahi dut, aurrez bibliografia jakin bat ezagutu gabe ere irakurgarria izango dena. Pro-


bak egiten nabil, idazmolde horren bila. Saiakerak berak zerikusia du doktore-tesiko ikerketarekin —desira, fantasia, fetitxea— baina Anne Dufourmantelle-ren eragin handia jaso du. Dufourmantellek haztatzen duen kontu batena zehazki: gozotasunak. Termino gisa, pentsamendu filosofikoa iraul dezake.

Gozotasunaren harira beste proiektu batean ere ari zara lanean, ezta?

Conde Duque antzokian gozotasunari buruzko ideia batzuk proposatuko ditut, Dufourmantellen testuarekin elkarrizketan, baina dantzaren eta antzerkiaren bitartez gorpuztuta. Beste bi artistarekin arituko naiz lanean, Karelis [Zambrano] eta Carmenekin [Rojas], haiek jarriko dute eszenan. Lankidetzan arituko gara. Gogoz nago bolada batean erdigunean ez egoteko. Izugarri eskertzen dut jendeak niri espazioak ematea, baina oraintxe bertan uste dut gehiegi egon naizela zentroan, eta albo batean kokatzea dagokidala, beste pertsona batzuk erdian jartzeko.

Amaitzeko, poesia pixka bat. *El ritual del baño*-ko [Bainuaren errituala] lehen poeman gaztelaniazko esaera zahar bati heltzen diozu: “Beti iturrira joanez, pegarra hausten da”. Buelta ematen diozu zuk, honela: “Baina, hautsi aurretik, hainbat aldiz bete zen”.

Bai, kontua da gure bilaketak, gure desirak, neka-neka eginda uzten gaituela. Niretzat, beti iturrira joan behar horrek adierazten du izaki desiratzaila denbora guztian dabilela bila, bere beharra egunero berritzen delako; gosea egunero berritzen da eta jan egin behar da eta oso nekagarria da. Batzuetan, neke horretan, bizitzari buruzko ikuspegi negatiboa gailentzen zaigu. Hautsi egingo naiz. Baina, hautsi aurretik beteko naizen aldi guztiak, zer? Nola hitz egin horretaz? Ahituta gaudenean, desiraren beherakadan, hutsunean, gogoratu nor izan ginen beteta geundenean. Hori ere bagarata: betetzeko potentzia. ●



EUSKARA NONAHI

MATRIKULATU ZAITEZ

EUSKALTEGIETAN!

Udalak finantzatutakoa

bilbaoeuskaraz.bilbao.eus



AURKITU ZURE
EUSKALTEGIA

B

Bilbao



Salamiren taktikaren arriskuak

Potentzientzat salamiaren taktika erakargarria da. Xerrak apurka-apurka era finean moztean datza. Horrela AEBek NATOren zabalkundearekin, nazioarteko legediaren hausturekin, erregimen aldaketekin eta nazioartean bere base militarren ugalketarekin errusiarren segurtasuna eta nazioarteko eragina murriztu zituzten, eta Moskuren haserre piztu. Baina ekintza guztiak era isolatuan aztertuta, ez ziruditen hain eskandalagarriak, ez behintzat erantzun bortitz bat justifikatzeko. Denbora igarota, ordea, AEBak helburu espansionista lortzen ari ziren; Kremlinak, atzera begiratu eta salamia bukatzen ari zela ikusita, era desesperatuan Ukraina inbaditu zuen, puska bat gorde nahian.

Orduetik, Ukraina eta Errusia arteko gerra funtsean *proxy gerra* da: NATOk Errusiaren aurka borrokatzen du Ukrainako Armada eta Estatua erabilia. Horrek ez du esan nahi Kievek Mendebaldeak dituen baliabide militar guztiak eskura dituenik. Horretan ere Washingtonek salamiaren taktika erabili du. Jakina da 2014tik NATO Ukrainan buru-belarri sartuta dagoela bertako armada entrenatzen eta gerrarako prestatzen, besteak beste, espioitza lanak egiteko baseekin.

Baina behin Errusia Ukraina inbaditzen hasi zela, Mendebaldeko buruzagiek adierazi zuten Ukrainaren defentsarako laguntza politiko, ekonomiko eta militarra ematen jarraitu zutela, baina ez Errusia erasotzeko. Mendebaldeko tankeak, hegazkinak eta misilak errusiarren aurka erabiltzen baziren, Moskuk gerra

Arazoa da NATOk eta Ukrainako Gobernuak zaila dutela azaltzea 2022ko bake akordioek aurreikusten zutena baino lurralde askoz gutxiago izango dutela heriotzaren eta suntsipenaren truke

adierazpen modura interpreta zezakeen. Horregatik, erasorako armak, mertzenarioak eta ekipamendu militarra dena aldi berean eman baino, pixkana-pixkanaka eman diote Ukrainari.

Washingtonek salamiaren taktika ondo ustiatzen jakin du. Atzera begiratzaren badugu, ez dago inolako dudarik *de facto* Mendebaldeko Errusiarekin gerran dagoenik. NATOk eta Kievek Kremlinak jarri dituen marra gorri asko bortxatu dituzte eta Moskuk ez du ezer egin. Logika horretan irakurri behar da ere uda honetan Ukrainako Armadak egin duen Errusiako inbasioa.

Baina Ukraina gerra galtzen ari da. Errusiak gatazka atrizio gerra gisa birplanteatu zuen 2022ko udazkenean eta orduetik, arazoekin bada ere, bere ibilbide orriak aurrera egiten du geroz eta



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

emaitza hobegoekin. Horri aurre egiteko alternatiba asko ez daude. Bake negoziatuzioa modu bat litzateke. Arazoa da NATOk eta Ukrainako Gobernuak zaila dutela azaltzea ukrainar biztanleei 2022ko bake akordioek aurreikusten zutena baino lurralde askoz gutxiago izango dutela heriotza eta suntsipen askoren truke. Halere, ukrainarrentzat gaitz txikiagoa da gerran jarraitzea baino.

Arazoa, baina, NATO da, bere irudia eta prestigioa oso higatuta geratuko liratekeelako. Ondorioz, Washingtoni bi aukera besterik ez zaizkio gelditzen. Lehenengoa, beste herrialde batek (Georgia, urriko hauteskundeetan gobernu aldaketa badago?) Errusiari bigarren fronte bat irekitzea edo, bigarrena, salamia zatitzen jarraitzea Ukraina eta NATO artean Errusiako federazioko lurraldean misilak botatz, nahiz eta horrek seguruenik ez lukeen gerraren norabidea aldatuko.

Kremlinak erantzungo luke edo burua hotz mantenduta Ukrainako gerraren garapenean zentratuko litzateke? Errusiak Mendebaldeko herrialderen baten aurka erantzun sendo bat emango balu edota arma nuklear taktikoren bat erabiliko balu, gertaerak NATOren edo aliantzako kideren baten eta Errusiaren arteko konfrontazio zuzena erraztu lezake. Horrela Errusiari bigarren fronte bat irekiko litzaiotke Ukrainatik kanpo edota beste armada batzuk ukrainarraren ondoan borrokatzen hasiko lirateke. Agertoki posible guztiak beldurgarriak dira eta akaso urrun ikusten ditugu, baina salamiaren taktikaren arriskuak hor daude beti. ●

Toponimoak ezabatzen



BEA SALABERRI
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Euskal Herriko lekuen izenen frantsesestearen arazoa ez da bakarrik seinale paneletan hizkuntza ez kontutan hartzearengatik izaten, duela zenbait urte hartu helbideratzeari buruzko erabaki baten gauzatzearen ondorioa ere bada.

Azal dezagun, administrazioko hainbat arlo sinplifikatzeko eta eraginkor egiteko hartu lege bidezko erabakiak (Parisko poderearen eta administrazioaren deszentralizazioa bideratu behar lukeenak eta bide beretik erabiltzaileen bizia sinplifikatu) helbide sistema aldatu eta bateratu du. Hainbat herritan karriken izenak, etxeenak eta bestelako lekuenak, helbide ofizialetan ez dira gehiago lehen bezala agertzen, baizik eta molde sinplifikatu eta uniformizatuan, munduko beste edozein hiri handitako helbideen gisan. Hots, gure eskualdeetako frantsesete prozesua azkartu du gisa batez.

Izan ere, azken urteetako lana da helbideen harmonizatzearena, zehaztearena eta berregitearena. Horiek horrela, gure herri handi eta (batez ere) tipietako etxeen helbideak eta karriken izenak moldatuak izan dira. Behar zen karrika guztiei izen bat eman eta helbide bakoi-tzari zenbaki bat.

Horren ondorioz, betiko etxeen izenak zenbaki bihurtu dira eta karriken izenak norabide soil baten adierazle.

Frantses administrazioaren eskutik, hizkuntza gutxituetako toponimiak etengabe egin du atzera azken hamarkadetan. Izan dadin euskal izenen kasuan, izan dadin beste hizkuntza gutxitue-nean. Nahiz eta, garai batez, hainbat indar eginak izan ziren leku izen zaharren biltzeko eta integratzeko mapetan.

Gainera, hirigintza lasterrak, soroetan lotizazioak sortzera garamatza. Nehori, edo kasik nehoi ere, ez zaio bururaten lotizazio berri horietan euskarazko edo beste bertako hizkuntzetako izenak jartzea.

Alde onak baldin badira ere, adibidez postarien, suhiltzaileen, zergalarien eta besteren lana errazten baitu, badu alde izigarri penagarria, ez baitu batera kontutan hartzen lekuen izen historikoa. Zenbakiak eta toponimo bitxiak hartzen dute euskarazko baserri izen zaharren lekua, eta horiek helbide ofizialetatik ia desagertzen ari dira. Euskal Herria ez da erabaki horren ondorioak pairatzen dituen lurralde bakarra. Britainian ere, Koun Breizh elkarteak arazo bera mahaigaineratu du berriki, baita Gaskoiniako, Korsikako edota Alsaziako biztanleek ere.

Helbidea aldatzeko betebeharrari buru eginez, misioa, milaka euro batzuen truke, gure hizkuntza kontsiderazioekin zer egirik ez duen administrazioaren eta postaren esku uzten da lekuen identifikazioa. Eta erabiltzaileek ordaintzen dute gaur egun beren lurraldeko berezkitasuna xuritzeko!

Bestalde, gure toponimian eragin kalteak irakurri beharko dira, zentzu gutxiko izenez gain, helbideratze bitxi batzuk ikusi beharko baitira. Adibidez *Le chemin d'Arrangoitzeko bide*.

Gure toponimiak gure erroen eta euskal herritar gisa lotzen gaituenaren lekuko dira. Agian, horregatik dute batzuek desagertzea nahi.

Hizkuntza larrialdi larriaz gain, Unesco uste du gure toponimiak parte hartzen duela gizateriaren kultur ondare immaterialean, eta botere publikoei eskatzen die babes dezaten. Debaldean.

Errekonozimendu sinboliko horrek gure hizkuntzari zor zaion begirunea indartzen lagunduko luke, gehiegitan falta baita.

Alde egiten ez denean, ezabatzen denean, kontra egiten da. Gure historiaren eta gure hiztun ibilbidearen inflexio puntu batean gaude, maila bat baino gehiagotan. ●

Zergatik lotsatu?



IÑIGO MARTINEZ PEÑA
FILOSOFOA

Lotsa ahitzen ari ote zaigu? Horixe da egungo hainbat autoreren diagnostikoa. Ez da existitzen, jada, lotsarazi ahal gaituen begiradarik? Bestelakoa zen Jean-Paul Sartrek, 1943an, lotsaren inguruan deskribatutakoa: sarrailaren beste aldean, begia giltzaren zirrikitan itsatsita, pertsona bat begira harrapatu dute, eta lotsa sentitzen du. Egungo pantailetan, aldiz, begira dagoena harrapatuz gero, berarekin batera begiratzeko gonbidapena jasoko dugu: “Hara! Eseri eta ikusi bideoa nirekin!”. Kultura pornografiko orokor batean bizi garela entzun ohi dugu, dena garden, gordin eta lotsagabe erakustea omen da gakoa.

Konplexurik ez! *Living your life*. Badi-rudi ahulen kontua baino ez dela lotsatzea, galtzaileen gauza. Beste garai batzuetan, aldiz, ez da egon lotsari buruzko ikuspegi gutxiesgarririk. Egun, ordea, lotsa izatea estigma sozial bilakatu da. Indibidualismoaren inguruko leloarekin lotu daiteke joera hori? Nola liteke lotsak gure askatasun pertsonalari horrelako mugak jartzea?

Eskolan, komunikabideetan edota pertsonen arteko harremanetan, lotsaren aurkako aholku psikologiko asko entzun daitezke, *coach*-en estiloan. Bizi zaitez axolagabe, besteek zer esango duten beldur izan gabe, nahiz eta esango dutena arra-

zoizkoa izan daitekeen; ez isildu zure iritzirik, astakeria izan arren. Utz diezaiegun buruari eta ahoari libre izaten. Errege bakarra existitu behar da: Nia. Lotsagarriena lotsatuta egotea da. Errudun sentitu zaitez lotsatzen bazara. Izan ere, hori da errudun sentitzeko motibo bakarra: bizitzaz, lotsaren erruz, behar beste ez gozatzea.

Agian, egun, ez da hain erraza *lotsaz hiltzea*, ados. Ohorea ez da egungo ideala eta ez dut uste ohorearen balio soziala berreskuratzea denik bidea –hori zen jendea erreputazioagatik lotsarazteko antzinako modua–. Baina zein izan da lotsaren bira neoliberala? Lotsa ezabatzea eta kontsumitzaile moduan lotsagabe disfrutatzen ari garela erakustea?

Lotsa iraultzailea da: horixe dugu Frédéric Gros-en liburu baten izenburua. Moralistegia al da diskurtso hori? Ez nuke letra larriz jarriko; hori ere, agian, gehiegi esatea da. Baina, moduren batean, elkarbizitza eta lotsa batera doazela uste dut. Besteen begiradaren aurrean lotsagarri agertzeak gure jokabide batzuei mugak jarri diezazkioke eta harremantzeko modu duinago baten alde egin. Agian ez da hain txarra komunitateak auzo-lotsa apur bat eragitea gugan. Eta, zorionez, asko ahalegintzen bagara ere *coach* berriei kasu egiten, agian ezinezkoa da lotsa erabat ezabatzea. ●

Ekin eta jarrai



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

"Ekin eta jarrai" da Euskaltzaindiaren goiburua. Ez dakit Akademia zergatik ez zuten ilegaltzatu, hiru berba horiek agertuta bere logotipoan. Gutxiagorekin egin dira salaketak-eta (adin batekook *La orquesta Mondragón*-en kasetearena gogoan dugu, Martxoaren 11ren ostean).

Umore beltza izan nahi du aurrekoak, baina euskararen akademiaren lemak beti eragiten dit txiste txar hori. *Ekin, jarrai(tu)* aditzak hautatu zituzten lelorako. Espainiako RAErena baino hobea, bestalde: *Limpia, fija y da esplendor*. Zoru garbigarri baten eslogana dirudi, barren!

Harira. *Ekin, jarraitu*. Aditz bi, biak bereziak, biek ala biek *nori* behar dutelako. Beraz, logikak Nor-Nork eskatu arren, Nor-Nori-Nork erabili behar da, Mastodon sare sozialean jaramonik egiten ez badute ere. Ez da “jarraitzen zaitu”, “jarraitzen dizu” baizik. Gure hipertzutasun horren biktima gara.

Ekin-ekin berdin, nahiz eta EITBk azken hilotan “ekin transformazioa” erabili duen grabatutako spotetan. Inor ez da konturatu? Ez dut sinisten. Gaztelaniaz onartuko lukete akatsa? Ez, ziur.

Erabilera historikoa da, ez kapritxoa. Gureari ekin eta jarrai. ●

Zenbatek?



AINGERU EPALTZA
IDAZLEA

"Zenbatek egingo du euskaraz 2075. urtean?". Izenburu asal-dagarria du Kike Amonarrizek prentsan berrikitan argitaratu duen artikuluak. Euskal Herrian baino lehenago, galdera halakotsua egin dute Katalunian. Joan M. Serraren *L'ús parlat del català en un tombant decisiu* (Katalanaren ahozko erabilera bihurtune erabakigarrian) liburuaren irakurketak zer gogoeta piztu dizkion partekatu nahi izan du gurekin soziolinguista tolosar erneak.

Euskaltzaletasunak inbidiaz begiratu izan dio beti Kataluniari. Ez dugu hemen hango indar eta bultzadaren erdia ikusi, ez herritarrengan ez erakundeetan, bertako hizkuntzaren alde. Han ere ibiliko ziren zakurrak oinutsik, baina literaturan nahiz hedabideetan, administrazioan nahiz eguneroko jardun arruntenetan, aitzindari, eredu eta bide-erakusle izan ditugu azken hamarkadetan katalanak.

Alabaina, katalanaren biziraupenari buruzko kezka areagotu da hondar urteetan. *Procés*-aren zirimolek badute noski ikusteko ezkortasun horrekin. Independentzia berehalakoarekin mintzaira behin betiko salbu ikusiko zutelakoan ari ziren, bertzeak bertze, katalan abertzaleak estatu berriaren

Espainiako
Estatistikaren Institutu
Nazionalak dioenez,
estatuko hizkuntza
koofizialen artean
euskara da hiztunak
irabazten ari den
bakarra

alde. Haien ametsa ez da gauzatu, eta gainera, iduri du atzarri zaiela hainbertze urteetan Katalunian gordean egon den mamu gaztelaniaduna. Espainola harro eta ozen aditzen da orain lehenago aho azpiz erabiltzen zen eremuetan.

Nik testuinguru horretan kokatuko nuke Serraren liburua, Amonarrizek hizpide hartu duena. Haren arabera, katalana, lehen aldiz historian, minoritario bilakatu da bere lurraldean. Higaduraren eragileak ezagunak ditugu gurean ere: estatuen eta hainbat aginte-erakunderen jazarpena edo bultzada eza,

hiztunen utzikeria, aldaketa soziodemografikoak (jaiotze-tasaren jaitsiera eta hiztunen zahartzea), etorkinen kopuru handia eta gazte aunitzen jarrera, gaztelaniaren aldekoa.

Horiek guztiak kontuan, Serrak aurrrera-begirako bat aurkeztu du bere liburuan. Hara, gaurko dinamikan, egiazko katalan hiztunen kopurua ez litzateke %25 baino handiagoa izanen 2075ean, hau da, egungoen erdia. Soil-soilik "neurri egokiak hartuz gero" lortuko litzateke oraingo hiztun errealen zenbakiari eustea (%40-45). Gerta liteke, hala ere, egoera makurtzea, eta horren ondorioz, talde marjinal bilakatzea, %10-15era beheititurik.

Beldur pixka bat ematen du. Serrak Amonarriz zubi dela "talde marjinala" izendatzeko erabiltzen duen ehunekoa ez dabil urrun euskararen egungo hiztun errealen kopurutik.

Hain gaizki gaude? Ez dakit. Espainiako Statistikaren Institutu Nazionalak dioenez, estatuko hizkuntza koofizialen artean euskara da hiztunak irabazten ari den bakarra, bai hiru probintzietan bai Nafarroan. Ikerketa iazkoa da, baina, auskalo zergatik, oharkabean joan zen gurean. Agian gure zakurrak ez dabilza hain oinutsik. ●

FINAL-ZORTZIRENAK

HONDARRIBIA ANDOAIN

Irailak 28, larunbata, 17:00
Itsas Etxea auditorioa

Irailak 29, igandea, 17:00
Bastero kulturunea

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus



ARGIA



LABORAL

FAGOR





KANTALDIA
Maddi Oihenart
eta Claudine
Arhancet

BAZKARIA

Eguneko
sarrera 30€
6-12 urte 15€
0-5 urte doan



2024

Baserriko uzta

Urriak 12
Larunbata

BISITA

**Pedronia
etxaldea**

Lohitzune-Oihergi (Zuberoa)

HAMAIKETAKOA



ANTOLATZAILEA

EHKOLEKTIBOA
AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

LAGUNTZAILEAK



E LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION Y
SOLIDARIDAD

hazi

ARGIA



1980-90 HAMARKADAK

Emakumeak rockaren eztandarenugarrean

Garai oparoa izan zen 1980ko hamarkada Euskal Herriko rock musikarentzat. Talde ugari sortu ziren: tartean, Belladona, Matraka eta La Viuda Negra. Hiru horiek soilik emakumez osaturiko musika talde nafarrak izan ziren. Iosebe Garaialde (Iruñea, 1961) lehen bi talde horietan aritu zen abeslari, eta Puri Altzelai (Altsasu, 1963) hiruretan baxu-jole: "Pentsatzen genuena kontatzeko eta musika borrokatzeko tresna bezala erabili nahi genuen".





MARINO GONIK UTZIA

Ezker eta eskuin, Belladona taldea, 1986an. *Rockanrolari. Rock navarro del siglo XX* izeneko erakusketan ipini dira argazkiak, Iruñean.

Elektrikoak dira”; “makarrak, rockeroak eta garratzak”; “Matraka: musika azkarra eta sendoa”; “rock nafarra irakiten”... Halakoak irakur zitezkeen Belladona, Matraka eta La Viuda Negra taldeen inguruan 1980 eta 90etako albisteetan. Urte horietan rock musikak eztanda egin zuen Euskal Herrian, eta emakumeak gutxi baziren ere, ez ziren atzean gelditu. “Oso emakume gutxi zeuden rock munduan, eta hemen gutxiago. Oroitzen dut kontzertuetara joan eta beste taldeetako kideek ez gintuztela aintzat hartzen gure musika proba ikusi arte”, kontatu du Puri Altzelaik.

Txikitatik argi zuen gitarra ikasi nahi zuela, baina eskolan hasi eta hortik gutxira bere Altsasuko gitarra irakaslea Iruñera joan zen lanera. Gitarra irakaslerik gabe geratu zen: “Txistuarekin hasi nintzen, eta gogoan dut rock kantak jotzen saiatzen nintzela [barre egin du]”. Hala ere, gitarra nahiago zuenez, bere kabuz ikasten saiatu zen: “Lagun batzuk klase partikularrak jasotzen zituzten, baina nik ezin nuenez gero, beraien atzetik joaten nintzen ikasteko”. Ostean, Bilbora joan, eta Altsasuko Yo Qué Sé taldeko kide batek baxua jotzea proposatu zion. Baiezkoa eman zuen –ez du ondo gogoan noiz izan zen hura,

“Estereotipoak oso finkatuta zeuden, eta neskek ez zituzten bateriaren gisako instrumentuak aukeratzen. Baizik eta pianoa, biolina edo txirula. Gainera, konpromisoa hartzea ere zaila zen”

Puri Altzelai

baina oroitzapen ederrak ditu–.

Sanferminen atarian Iruñeko Sarasate pasalekuan izaten ziren kontzertuetako batean jotzeko eskatu zieten: “Nire lehengo kontzertua zen, eta aste bakar batean prestatu nuen errepertorioa; pentsa nola atera zen”. Ondorengoa jakinda, gaizki ez: Aurora Beltran musikariak kontzertua ikusi eta begia bota baitzion Altzelairei. Harreman horretatik sortuko zen, gerora, Belladona taldea; proiektua hastapenetan zegoenean, denbora eman zuten bateria-jole eta abeslari bila.

Kostata heldu ziren Maria Cerrato eta Iosebe Garaialderengana. Pabellón Negro taldean zebilen Garaialde, Beltranen deia jaso eta Belladonaren ideia komentatu aurretik. Bere baiezkoaren ondotik, bateria-jolea aurkitzea kostatu zitzaien gehien. Extremadurako neska bat aurkitu zuten, Cerrato.

Zaila zen rock talde batean aritu nahi zuten neskek aurkitzea: “Estereotipoak oso finkatuta zeuden, eta neskek ez zituzten bateriaren gisako instrumentuak aukeratzen. Baizik eta pianoa, biolina edota txirula aukeratzen zuten. Gainera, konpromisoa hartzea ere zaila zen”. Egun, Altsasuko musika eskolan irakaslea da Puri Altzelai, eta nabarmendu du oraindik ere kostatu egiten dela neskek gitarra eta bateria bezalako instrumentuak aukeratzea: “Borroka handiak ditugu estereotipo horien kontra joateko”.

ABIADURA AZKARREAN

“Oso ongi jotzen genuen eta bai jendeari eta bai guri ilusioa egiten zigun. Eroso ibiltzen laguntzen zigun”, esan du Garaialdek. Horrez gain, emakumeen artean bestelako giro bat sortzen zela dio Altzelaik: “Emakumeon artean elkar-ulertze handiagoa zegoen”. Gauzak beste modu batean egiteko beharra ere



MARINO GONIK UTZIA

bazutela sentitzen zuen Garaialdek: “Uste dut nahi gabe elkartu ginela borrokatzeko beste bide eta hizkuntza bat behar genituelako”.

Emakumeek elkar babesten bazuten ere, aldi berean euren artean “misoginia handia” zegoela sentitzen du Garaialdek: “Oso itxura gogorra transmititzen genuen, rock munduan etengabe erakutsi behar genuelako hor egotea merezi genuela. Horrekin ez dut esan nahi ez nuela itxura hori izan nahi, baina aldi berean zenbait gauza janzteko mugatua sentitzen nintzen. Azkenean, toki batetik edo bestetik, beti epaitzen zintuzten eta askotan geunden elkarren kontra lehiatzen”.

Elkarren artean ez konparatzeko eta ez epaitzeko feminismoa lagungarria izan da Garaialderentzat, baina “poliki-poliki” egindako prozesua dela dio: “Ez zen egun batetik bestera gertatu. Mugimendu sozial baten barruan geunden, baina beti bezala diskurtsoa bizipenen eta momentu horretan emozionalki kudeatzen ahal genituen gauzen gainetik zetorren. Gainera, diktadura batetik gentozen, eta bat-batean dena askatasuna zela zirudien, baina ez zen erreala”.

Horrekin batera, “dena oso azkar” iritsi zela uste du, konturatu orduko oholtza baten gainen zeudelako, eta toki batean

eta bestean jotzen ari zirelako: “Arrapaladan harrapatu ninduen, gainetik pasatu izan balitzait bezala”. Garaialdek ez zuen argi zer zen lana eta zer zaletasuna, eta kosta egiten zitzaion horretan kokatzea: “Ez nengoen prest horretarako”.

Burbuila batean bizi zirela ere sentitzen zuen, uste zutelako mundu osoak gauza bera egiten zuela: “Oso akats larria da, pertsonak oso desberdinak garelako. Batzuk, drogatuta beharrean, ikasten ari ziren, eta beste batzuk fabrikari gogorlan egiten ari ziren, gero etxe bat eta auto bat izateko”. Horren kontra ere borrokatu ziren: “Guk nahi genuena aldarrikatu eta fabrikara ez ginela joango esatea ere gure iraultzaren parte zen”.

Altzelairentzat ere urte nahasiak izan ziren, “politikak” zein “mingarriak” izan zirelako: “Gaztea nintzen eta gauza pila bat egiten nituen, saltsa guztietan nengoen eta ongi pasatzen nuen, baina barrutik ere min handia neukan gauza askorengatik”. Alde batetik, ikasle bizitza egiten ari zen. Astelehenetik ostiralera Iruñean bizi zen irakasle ikasketak egiten ari zelako, eta asteburuetan Altsasura itzultzen zen: “Oso ongi pasatzen nuen”.

Testuinguru politikoa “oso gogorra” zen. Altzelai: “Gogoan dut Mikel Arrege hil zutenean. Horrelako gauzak oso

fuerte bizi nituen”. Herri Batasunako zinegotzia, Guardia Zibilak 1979an hil zuen tiroz. Horrez gain, Altzelairen osaba gerran hil zuten eta neba kartzelan zegoen: “Asko eragiten zuen zerbait zen, aitona-amonek ez zuten osabaren inguruan hitz egiten eta beldurrarekin bizi zuten dena”. Halere, urte horietan dena “oso azkar” pasa zela dio: “Beti esaten dut zentrifugatzen ari zen garbigailu batean geundela”.

EMAKUMEAK, SEXUALITATEA ETA PRESOK ERDIGUNEAN

Zurrunbilo horretan guztian, lehen eta azken elepea sortu zuen Belladona taldeak: *Las mujeres y los negros primero* (Soñua, 1986). “Hondamendiak zeuden film guztietan, beti esaten zuten emakumeak eta haurrak lehenengo salbatzeko. Orduan, ironikoki buelta eman, eta emakumeak eta beltzak erdigunean jarri nahi genituen. Azkenean, gu beti ginen azkenak, eta duela gutxi arte baimena eskatu behar genuen edozer egiteko”, azaldu du Garaialdek.

Horrez gain, beste kontu askoren alde ere borrokatzen zuten; hala nola sexualitatearen, presoen, intsumisoen –aurrerago Matrakarekin– eta euskararen alde. “Nire bandera desobedientzia




IOSEBE GARAIALDEK UTZITAKO ARGAZKIAK

Auftrag: **DURCHSUCHEN UND VERHAFTEN!**
Durchführung: **BUNDESKRIMINALAMT**
Betroffen: **INGRID STROBL, ULLA P. und:**
FRAUENWIDERSTAND GEGEN GEN- UND REPRODUKTIONS-
TECHNOLOGIE • KRITIKER/INNEN DES PROSTITUTIONS-
TOURISMUS • WIDERSTAND GEGEN ABSCHIEBEPOLITIK
VON FLÜCHTLINGEN • KRITISCHE JOURNALIST/INNEN •
HAUSBESETZER/INNEN

SOLIDARITÄTSKONZERT
MATRAKA
Frauenband
aus
Euskadi

REITSCHULE So 27. 11. 88 21⁰⁰

Matraka taldeak Europan egindako birako irudi batzuk.



da”, “gizontasuna piropo ergelekin erakutsi nahi dute” edota “gozatzea gustuko dugu” bezalako esaldiak kantatzen zituzten. Altxelaik zera esan du: “Pentsatzen genuena kontatu, eta musika borrokatzeko tresna bezala erabili nahi genuen”. Eta hauxe gehitu dio Garaialdek: “Folklore horrenbeste gustuko ez genuenok rocka nahi genuen”.

Hala ere, Garaialderi kosta egin zitzaion rock munduan bere ahotsa aurkitzea, koruan kantatzetik zetorrelako. Hori dela eta, ahotsaren inguruan ikasitako guztia taldean praktikan jartzea “ezinezkoa” egiten zitzaion: “Kantatzeko beste modu bat zen. Orduan, neure ahotsaren inguruan nekien guztiak, hala nola modulazioek eta dinamikek ez zuen rockerako balio. Horregatik, asko kostatu zitzaidan nire ahotsa aurkitzea”. Gainera, emakumezko erreferenteak falta zitzaizkiola nabarmendu du: “Janis Joplin, Billie Holiday eta Donna Summer zeuden, baina beranduago ezagutu genituen”.

Elepea grabatu eta gutxira, taldea degegin egin zen eta Beltranek Tahúres Zurdos sortu zuen. Gainerako kideek, Garaialdek (ahotsa), Altxelaik (bajoa) eta Cerratok (bateria), Janis Ortiz de Záratekin (gitarra) batera Matraka taldea sortu zuten 1987. urtean.

JAUZIA EUSKARARANTZ

Belladona taldetik Matrakara egindako jauzian bi aldaketa handi daude: alde batetik, rocketik urrundu eta punkera hurbiltzen dira; eta bestetik, euskaraz kantatzen ahalegin kontzientea. “Matrakaren garaian erraieratik ateratzen zitzaigun musika punkiagoga egitea”, esan du Garaialdek. “Kaña gehiago nahi genuen, eta gainera, Janisek gitarra hartu zuenez estiloa aldatu zen”, gaineratu Altxelaik.

“Euskara oso ongi jakin ez arren, euskararen alde nengoen. Oso argi nuen ikasi eta euskaraz bizi nahi nuela. Horregatik, nekien apurrarekin, ahal bezala moldatu nintzen letrak idazteko”

Puri Altxelaik

Horrez gain, Garaialderen ustez, drogekin batera ere, speed-ak eragin “handia” izan zuten. Esaterako, *Gure salaketa* (Oihuka, 1990) diskoaren emaitza ikusten da: “Oso azaleratua zen, dena zelako azkar. Nire ustez kantek galdu egiten dute”. Gaineratu du diktaduraren errepresioaren ondoren, probatzeko eta bizitzeko jakingura “handia” zegoela: “Momentu batzuetan drogak oso sortzaileak ziren, baina aldi berean, pasatzen bazinen, oso suntsigarriak ere izan zitezkeen”.

Euskarari dagokionez, Garaialdek argi utzi du “bai edo bai” euskaraz egin nahi zutela: “Euskara oso ongi jakin ez arren, euskararen alde nengoen”. Garai hartan, euskara ikasten ari ziren biak. “Oso argi nuen euskara ikasi eta euskaraz bizi nahi nuela. Horregatik, ikasi nuen apurrarekin ahal bezala moldatu nintzen letrak idazteko”, esan du Altxelaik. Hasieran, zenbait momentutan “zaila” eta “gogorra” egiten zitzaion ez zeuzkalako behar beste tresna elkarrizketetan euskaraz mintzatzeko, edota

esan nahi zuena adierazteko. Hala ere, ez zuen amore eman: “Niretzat bide bakarra zen. Euskara bizitzeko esparru guztietan txertatu behar duzu; bestela, behin eta berriz ikasi arren, gero ez zara egunerokoan moldatzen”.

Gure salaketa Matrakaren lehenengo diskoa izan zen, eta Altxelairen nebari-kartzelan zegoelako eta Txarito komandoari eskaini zioten: “Oso gogorra zen neba kartzelan egotea. Momentu oro presente neukan, eta nituen tresna guztiak, kasu honetan musika, horren kontra borrokatzeko erabili nahi nituen”. Politikoki urte horiek “oso gogorrak” izan zirela gaineratu du Garaialdek: “Zigor handiko garai batetik gendotzen, eta horri aurre egiteak, euskaraz egiteak eta Euskal Herria aldarrikatzeak zekarren guztiarekin”.

Halere, bere bizitzaren protagonista izan nahi duen edonori eskainita egon zitekeela uste du Garaialdek: “*Siempre yendo* kantak oso ongi adierazten du hori: ‘Beti joaten, beti joaten, inoiz ez itzultzen (...) animaliek beti dakite noiz lehertuko den ekaitza”.

“Emakumeen artean elkar-ulertze handiagoga zegoen, eta gauzak beste era batean egiteko beharra sentitzen genuen”

Iosebe Garaialde



ATXEGA JAUREGIA

JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com

EUROPAKO BIRA

Lehenengo diskoa grabatu zutenean bira bat egin zuten Europatik ENAM Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren alde. Kortatu eta Hertzainaken gisako taldeek parte hartu zuten bira horretan, eta Belladona ere gonbidatuta zegoen, baina banandu berri zirenez, aurrerago egin zuten Matrakarekin. “Europan zegoen mugimendu alternatiboaren parte izan ginen, eta Suitzako eta Alemaniako etxe okupatu batzuk ezagutu genituen. Ikaragarritzko auzoak ziren, dena etxe okupatuekin. Oso polita izan zen”, kontatu du Garaialdek.

Taberna askotan jo zuten; besteak beste, Suitzako Rote Fabrik aretoan: “Gazteei emandako eraikin erraldoi bat zen, eta denetarik egiten zuten: zirkua, musika ikastaroak...”. Bernan (Suitza) ere izan ziren: “Gogoan dut han La Polla Records taldekoekin elkartu ginela, Italiatik zetozela haiek; zelako gauak pasatu genituen”. Ostein, Berlinera joan ziren eta soilik emakumeentzako zen taberna batean jo zuten: “Garai hartan ikaragarria zen”.

Intifaden aldeko manifestazio batean ere parte hartu zuten Hanburgon (Alemania): “Palestinaren alde ikusi dudana manifestaziorik handiena izan zen. Polizia pila



PURI ALTZELAIAK UTZITAKO ARGAZKIA

bat zegoen eta kontrol asko egiten zituzten. Manifestazioak iraun bitartean kontzertu bateko kartelak banatu genituen”.

Horren ostean, bigarren diskoa grabatzeari ekin zioten, eta gai “pertsonalagoak” lantzen hasi zirela azaldu du Altzelaik: “Taldea askori gertatzen zaie. Hasieran borroka sozialetan zentratzen zara, eta denborarekin, barneko gauzak ere kontatu nahi dituzu”.

Horregatik, *Beldurrik ez* (Oihuka, 1991) diskoa kaleratu zuten. Matrakaren bigarren eta azken diskoa izan zen, eta musikaren bidez beldurrei aurre egitea zuen helburu: “Haurtzaroen eta nerabezaroen oso ongi pasatzen nuen, baina aldi berean, oso bizitza mingarria neukan eta beldur pila bat nituen horren ondorioz”. Gaineratu du eragin “handia” zutela bere bizitzan: “Emakumeok egoera horiek gogorrago bizi genituen, arriskuak handiagoak zirelako”.

Bigarren diskoaren sorreran kide aldaketa ugari egon ziren taldean; Garaialdek taldea utzi zuen. Horren ostean, musikatik urrundu zen urte luzez. Baina duela hamar urte baino gehiago gitarra jotzen hasi zen atzera ere: “Musika berreskuratzea ezinbestekoa izan da neure buruarekin hobeto sentitzeko”.

AZKEN HATSA

Garaialderen irteerarekin, eta hainbat aldaketekin batera, taldearen estiloa aldatuz joan zen. Azkenean, taldea desegin, eta Altzelaik eta Ortiz de Záratek La Viuda Negra rock taldea sortu zuten Christel Teruelekin (ahotsa eta gitarra elektrikoa) eta Eva Fernándezekin (bateria) batera.

Teruelek egiten zituen taldeko konposizio gehienak, eta *La Viuda Negra* (1998) diskoa kaleratu zuten: “Gai asko lantzen genituen: horietako asko amodioari eta sexualitateari lotutakoak ziren”. Beste gai batzuk ere landu zituzten; hala nola indarkeria sexuala eta drogak. Urte “politikak” izan arren, “gogorrek” ere izan ziren Altzelaientzat: “Hasieran dena zen parranda, eta gero ondorioak etorri ziren; batez ere, heroinarekin. Lagun asko galdu genituen”.

Nabarmendu du heroina ez zela zabaldu Euskal Herrira ausaz, baizik eta herria “apaltzeko” estregia politikoenatik: “Oso erraza zen eskuratzea. Boteareak sartu zuten droga pila bat azkar eta oso erraz. Euskal Herrian mugimendu handia zegoen, eta jende asko ari zen gauza askorengatik borrokatzen. Hori suntsitzeko sartu zuten droga, heroina batez ere, eta lortu zuten”.

La Viuda Negrak lehenengo diskoa kaleratu zuenean banandu zen taldea Altzelaik eta Fernándezek taldea uztea erabaki zutelako. Altzelaik Lehen Hezkuntzako irakaslea zen, eta Iruñera joan behar zen entseatzera: “Pixka bat erreta amaitu genuen partaide guztien konpromisoa ez delako berdina”.

Taldea amaitu zenean Altzelaik gitarra ikasten hasi zen. Hasiera, gitarra elektrikoa ikasi nahi zuen, baina Altsasuko musika eskolan ez zegoenez, klasikoa ikasi zuen: “Gustatu zitzaidan”. Egun musika irakaslea da eskolan: “Jarraitu nuen irakaslea izaten, baina musikarekin uztartuz”. ●

Koop mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI
943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus
www.talleresmitxelena.eus



MANTEROEKIN BAT

*“Ez dirudi agintariak
benetako interesa dutenik
manteroen egoera
konpontzeko”*

Luisa Menéndez (Ongi Etorri Errefuxiatuak), Elena Bezanilla (Bizkaiko SOS Arrazakeria) eta Boubacar Diouf (Mbolo Moye Doole).

Manteroeak azken hilabeteetan Bilbon bizi duten egoeraz aritu gara ManteroeKin Bat plataformaren barruan dauden hiru elkartetako kideekin: Boubacar Diouf (Mbolo Moye Doole), Luisa Menéndez (Ongi Etorri Errefuxiatuak) eta Elena Bezanilla (Bizkaiko SOS Arrazakeria). Salatu dute polizien esku-hartzeek "nabarmen" egin dutela gora.

 JULEN UGARTEMENDIA CARCEDO  PELLO MAUDO / ARGIA CC BY-SA



EITB

Apirilaren 4an, 30 langile senegaldar baino gehiago Bilboko Ledesma kalean beren produktuak saltzen ari zirenean, ohiz kanpoko polizia kopurua bertaratu zen -80 agente eta hamar patruila auto-. Saltzaileen salgaiak, motxilak eta ondasun pertsonalak konfiskatu zituzten udaltzain eta ertzainek, salatu zuten baita indar fisikoa erabili ere, borrak eta txakurrekin egindako mehatxuak barne.

Apirilean Bilboko dozenaka kolektibo eta erakunde sozio-sindikalek Manteroekin Bat plataforma sortu zuten, apirilaren 4an Bilboko Abando barrutian izandako "eraso polizialen" harira. Mbolo Moye Doole Plataformako kide Boubacar Diouf-ek esan digu Bilboko Udaltzaingoko eta Ertzaintzako 80 polizia inguru "bizimodua aurrera ateratzen saiatzen den jendearen gauzak hartzera" joan zirela. Salatu du muturrekorik ez zeukaten txakurrak eta borrak erabili zituztela, eta gaineratu neurri handiagoan ala txikiagoan eraso polizialak "beti" izan diren arren, apirilaren 4an gertatutakoaz geroztik areagotu egin direla nabaritu dutela.

Bilboko Aste Nagusiko jaietan Udaltzaingoko eta Ertzaintzako "indarkeriaz eta arrazakeriaz" jardun zutela salatu zuen Manteroekin Bat plataformak. Jaietan hainbatetan esku hartu dute poliziek, eta azken egunean, Arriaga Antzokiko zabalgunean ziren herritarrek ikusi zutenean poliziak manteroak jazartzen ari zirela, manteroak defendatu zituzten, Bilboko Konpartsetako kideekin batera, "Bilboko Konpartsak manteroekin bat" oihuen artean. Diouf-ek adierazi du azken egunean gertatutakoak "saihestu" zitezkeela.

Aste Nagusiko jaien ondoren, Manteroekin Bat-ek abuztuaren 27an Arriaga antzokiaren aurrean elkarretaraztea egin zuen, "Manteroen aurkako jazarpen gehiagorik ez" lelopean. Plataformak salatu zuen jaietan poliziek "jarrera estigmatizatzailea eta bortizki arrazista" izan zutela, eta manteroen "salgaiak, dirua eta ondasun pertsonalak atxiki" zituz-

tela. Diouf-ek kontatu du mantero bati ondasun pertsonalak kendu zizkiotela: "Haiekin hitz egiten saiatzen gara, baina beldur dira. Mutil batek esan dit ez duela salaketa jarriko arazorik ez duelako nahi, baina esan diot jada arazoa baduela, epaiketa bat izango du-eta. Ondasun pertsonalak kentzekotan, itzuli egin behar dituzte".

EGOERA KONPONTZEKO "BENETAKO INTERESIK EZ"

Plataformatik adierazi dute polizia operazioen gorakada Bilboko Udalak bultzatutako "erabaki politikoa" dela. Bizkaiko SOS Arrazakeriak elkarteiko kide Elena Bezanillak Bilboko Udalak segurtasunari buruz esandakoak kritikatu ditu: "Udalak segurtasunari buruz asko hitz egiten du, eta kezkatu egiten nau. Urte asko ziren segurtasunaz hitz egiten ez zena, eta ez dut uste arazo bat denik. Psikosia eta beldurra sortzen dute. Zer onura lortzen dute beldurretik eta segurtasun ezatik? Uste dut sekurizazio politika horrek pertsona baztertuak kalteko dituela gehien".

Ongi Etorri Errefuxiatuakeko (OEE) kide Luisa Menéndez-ek arabera, bestalde, "inolako konpromisorik gabeko hitz batzuetatik haratago, ez dirudi benetako interesik dagoenik agintarien aldetik manteroen egoera konpontzeko. Manteroei entzungo dietela esaten dute, baina zertarako? "Beraiekin bilera bat izan dutela esateko? Egoera ezagutzen dute, eta manteroak nazkatuta daude. Nori gustatuko litzaioke kalera ateratzea oihal zati batekin eta produktu batzuekin? Guztiok nahi ditugu lan bal-

dintza, eskubide eta betebeharrak batzuk". Diouf-ek adierazi du kaleko salmentak garai jakin batzuetan duela arrakasta -batez ere udan jaiak direla eta-, baina beste batzuetan manteroek ez dutela ezer saltzen. Menéndez-ek kolaborazio handiagoa eskatzen du administrazioen partetik: "Nik ez dut esaten ezer egiten ez dutenik, baina askoz gehiago egin dezakete. Ez da normala 500 pertsona baino gehiagok kalean lo egitea, eta aterpetxerik ez egotea".

Mbolo Moye Doole Plataformako kideak migratzaileek dituzten zailtasunak aipatu ditu, indarrean dagoen Atzerri-tarrei Buruzko Legea dela-eta: "Legeak galarazi egiten die paperik gabeko pertsonen lan-merkatuan sartzea urte pare batean, eta kalean saltzen dute bizimodua ateratzeko. Etorkizun ilun samarra da, ez baita bermatzen hiru urte Espainiako Estatuan emanek gero paperak izango dituzunik. Jende askok bost, sei, zazpi edo hamar urte daramatza paperen eske". Bezanillak esan du bere lagun batek hemezortzi urte daramatzala paperak lortu ezinean.

SOS Arrazakeria taldeko kideak azpimarratu du "erantzukizun politikoa" eskatu behar dela, "borondate politikoa baldin badago, konponbideak daudelako": "Zigorra eta errepresioa ez diren irtenbide integralak izan daitezke, udalaz gain beste administrazio batzuk ere barnean hartzen dituztenak. Gure bizilagunek bizi duten egoerari aurre egiteko irtenbideak aurki daitezke, lege bidegabe eta arrazista baten eraginez beren eskubideak murriztuak direla ikusten baitute". Manteroekin Batek abuztuaren



TXENGG MENG / FLICKR CC BY-NC 2.0

Bilboko Konpartsek deituta, Udaltzaingoaren "gehiegikeriak" salatu eta manteroei sustengua adierazteko elkarretaratzea egin zen abuztuaren 20an, Arenalean.

27ko deialdian zabaldutako oharrean irakurri daitekeenez, "premiatzakoa da manteroen oinarrizko eskubideak urratzea eragozten duten mekanismo kolektiboak planteatzea".

Plataformak hiru bilera izan ditu Bilboko Udaleko Berdintasun, Bizikidetz, Lankidetz eta Migrazio arloko ardura-dunekin, eta bost eskaera dituzte oinarri. Batetik, ardura politikoa eta gehiegikerien gaineko kontrola: "Poliziaren jardunean indarkeria fisiko eta ahozkoa berehala amaitu dezala exijitzen diogu Udalari, eta boterearen abusua baliatzen duten polizien jarraipena, kontrola eta zigorra aplikatu ditzala". Bigarrenik, poliziek kale saltzaileen dokumentazioa edo bestelako objektu pertsonalak hartzea oinarrizko eskubideen aurka doala gogoratu dute, eta praktika horrek desagertu behar duela azpimarratu. Berdin kale saltzaileen produktuak konfiskatzeko praktikari dagokionez: jardun eztabaidagarria eta ez oso gardena dela diote, eta berrikusi behar dela. Laugarren puntua da, beste lurralde batzuetan egin den moduan, salmentarako espazio seguruak adostea, bai Aste Nagusian bai-

ta auzoetako jaietan ere. Azkenik, udal kiroldagietan pertsona manteroak sartu ahal izatea eskatu dute, baldintza duinetan garbitu eta atsedean haru ahal izateko. Neurri horien helburua "horrelako jarduerak berriz ez errepikatzea" da, eta "zentsuzko gutxieneko irizpide batzuk ezartzea, manteroen oinarrizko eskubideak urratzen dituzten polizia-abusu arrazisten egoerei aurre egiteko". Plataformak adierazi du egindako bost eskaerei Bilboko Udalak ezezkua eman diela, eta abuztuaren 27ko elkarretaratzeaz geroztik ez dutela beste bilerarik izan.

ERAGINDAKO KALTEA KONPONTZEA ETA AITORTZEA

Menéndezek dio poliziak migratzaileen aurka egindako "boterearen abusu kasuak normalizatzen" ari direla: "Ongi Etorri Errefuxiatuak-en egoitzaren inguruan bizi diren pertsona askok esaten digute bi edo hiru egunetik behin dokumentazioa eskatzen dietela. Duela bizpahiru hilabete hamar bat gazte zeuden zain elkartearen egoitzan artatuak izateko, eta hiruzpalau polizia-auto agertu ziren. Hormaren kontra jarri zituzten

eta dokumentazioa eskatu zieten, abisu bat jaso zutelako inguruan mugikor bat lapurtu zutela. Zergatik ziren eurak susmagarriak? Migratzaile itxura zutelako? Hori gehiegikeriak normalizatzea da".

"Egun batean, metrorantz korrika nindoala, bi udaltzainek galdetu zidaten ea nora nindoan eta poltsikoan zer neukan. Mugikorra ateratakoan, pasahitza jartzeko esan zidaten", kontatu du Dioufek, berak bizitako egoera baten inguruan. Bezanillak kezka agertu du, pertsona arrazializatuak izateagatik kalean segurtasunik gabe ibiltzeak migratzaileengan eragin psikologikoak izan ditzakeela-eta, baita erasoak, irainak edo lapurretak sufritzeko arriskuak ere". Salaketak ez ezik, egindako kaltea konpondu eta aitortu egin behar dela adierazi du SOS Arrazakeriak elkartearen kideak.

Bezanillak esan du ez dela profil etnikoaren arabera identifikazio-daturik jasotzen, eta azken datuak 2013 ingurukoak direla. Eta gaineratu: "Profil etnikoaren arabera egindako identifikazio guztiengatik Europak Espainiako Estatuak ohartarazi du".



"Egun batean metrorantz korrika nindoala, bi udaltzainek galdetu zidaten ea nora nindoan eta poltsikoan zer neukan. Mugikorra ateratakoan, pasahitza jartzeko esan zidaten", kontatu digu Mbolo Moye Doole elkarteko Boubacar Dioufek.

KRITIKO KOMUNIKABIDE BATZUEK ZABALDUTAKO MEZUEKIN

"Beldurra da gizartearengan eragin handiena duena. Inbasio eta delinkuentzia mezuak bidaliz jendea beldurtzen da", adierazi du Menéndezek, komunikabide batzuek zabaltzen dituzten mezuei erreferentzia eginez. Komunikabideek, elkarteek, gizarteak eta erakundeek "beldurrari aurre egin behar" diotela azpimarratu du, komunikabide batzuen mezuak adibide gisa jarrita: "El Correo-k beti dauka migratzaileak kriminalizatzeko mezu bat, beti hitz egiten dute delinkuentziatz eta inbasioaz. Espainiako Estatuko eskuin muturraren mezu arrazistenak eta xenofoboak jasotzen dituzte, eta

era leunean islatzen dituzte. Zergatik ez dute erreportajerik egiten non esaten duten Europako 16.000 mila milioi pertsona migratzaile daudela mundu osoan; edota indarrean dagoen Atzerritarrei Buruzko Legeaz, migratzaileen aurka dagoen erreprezioaz eta gobernuek mugak indartzeko gastatzen dituzten milioika euroez?". Menéndezek dio gizakiak "beti" migratu duela, "estatuak edo mugak egon baino lehenagotik", eta migratzea eskubidea dela: "Jendeak migratzeko eskubidea du, eta bide seguruak ireki behar dira horretarako". Eskuin muturrak migratzaileak izateko interesa duela uste du, "baina baldintza kas-karretan, eskubiderik gabe eta modu txarrean lan eginez".

"Udalak segurtasunari buruz asko hitz egiten du. Etsai bat sortzen ari dira, eta izugarria da. Nire ikuspuntutik nazismora hurbiltzen da".

Elena Bezanilla
(SOS Arrazakeria)



Agintariek "etsai bat sortzeko interesa" dute, esan digu Bezanillak, "kontrolrik gabeko pribilegioak eta onurak" mantentzen jarraitu ahal izateko: "Etsai bat sortzen ari dira, eta izugarria da. Nire ikuspuntutik nazismora hurbiltzen da". Dioufek, bestalde, esan du komunikabideek ez dutela jasotzen Europako arrantza-ontziek Afrikako estatu batzuetan egiten dutena, eta salatu du jardun hori zehazki Senegalen "migrazioaren jatorria" dela: "Urte asko eman ditut itsasoan, eta ez dira arrantza-eremuak errespetatzen, ez dira lizentziak errespetatzen... Euskal atunontziek nahi duten guztia arrantzatzen dute, eta hedabideek ez dute hori salatzen". Bezanillak ere nabarmendu du familia arrantzaleak "emigratzera behartzen" dituztela: "Ez da estraktibis-

moaz hitz egiten, ezta Europa nahieran ari dela aberastasun guztiak desjabetzen, gero mugekin ere negozioa egiteko".

LEGEZKOTASUNA ETA MORALTASUNA, AURREZ AURRE

Bilboko Udalak manteroek egiten duten salmenta "legez kanpoko" dela esaten du, baina Menéndezek adierazi du "legez kanpokoaren eta moral eta etikoa-ren artean bereizi behar" dela: "Haiek legezkotasunean oinarritzen dira, baina legezkotasuna herritar-arau edo udal-arau batzuekin alda daiteke. Bartzelonan akordio batera iritsi ziren manteroekin".

Bezanillak adierazi du ez dagoela ados Bilboko Udalak transmititzen dituen hainbat mezuekin, eta gauza batzuk esaten dituztela, baina beste batzuk egin:

"Bilboko Udala legezkotasunean oinarritzen da, baina legezkotasuna herritar-arau edo udal-arau batzuekin alda daiteke. Bartzelonan akordio batera iritsi dira manteroekin"

Luisa Menéndez
(Ongi Etorri Errefuxiatuak)

"Polizia hurbilaz hitz egiten dute, baina txakurrekin doaz bizimodua modu baketsu eta duinean ateratzen duen jendea erreprimitzera. Bilbo kulturartekotasunaren eta harreraren hiria dela esaten dute, baina lehen eta bigarren mailako herritarrak daudela ikusten dugu. Jaiak oso baketsuak izan direla diote, baina batzuekin ez da hainbeste nabaritu".

Hala ere, Manteroekin Bat plataformako hiru kideek adierazi dute herritar gehienek ez dutela gaizki ikusten manteroek egiten duten lana: "Denetarik dago, baina subjektiboki uste dut jendea ez dagoela manteroen aurka. Zabalduta dago inori kalterik egin gabe bizimodua ateratzen ari diren mezua". Manteroekin Batek egindako azken adierazpean 66 elkarteren sinadurak daudela adierazi du Bezanillak, eta azpimarratu du Bilboko Konpartsek Aste Nagusiko jaietan emandako laguntza. "Batzuetan jendeak esaten du 'sinadura bat baino ez' dela, baina partaide zaren elkarteak sinatu duela ikusten duzunean, nolabait ere elkartasun horrekin lotuta sentitzen zara", adierazi du Menéndezek.

Gaineratu du Euskal Herrian migratzaileei laguntzeko elkarte eta kolektibo asko daudela. Dioufek azaldu digu, adibidez, Manteroekin Batek irailaren 12an tailer bat antolatu zuela, manteroek beraien eskubideak defendatzeko tresnak eta bestelako aspektu legalak ezagutzeko, eta jarduerak eta ekintzak antolatzeko bidetik jarraituko dutela. ●

BERO LATZAREN AURREAN

hiriak birnaturalizatzeko beharra

Euskal Herriaren zatirik handiena klima zonalde epelean kokatuta egon arren, Arabako eta Nafarroako hegoaldean ez ezik, edonora hedatzen dira udako bero bolada latzak. Eta, dirudenez, klima aldaketarekin okerrera egingen du egoerak –edo egiten ari da, honezkero?–. Hirietan, gainera, zailagoa izaten da bero egun horiei aurre egiteko gune freskoak topatzea. Hain zuzen, gai horri lotuta dago Iñigo Azkarate arkitektoaren doktoretza tesia: estres termikoari aurre egiteko, hirietan zuhaitzek dakartzaten onurak aztertu ditu, arreta bereziki Bilbon jarrita.

 GARAZI ZABALETA

Beroa gurea ere bada. Abuztuaren 11n Euskal Herrian izan ditugun tenperatura historikoak dira horren lekuko: Bizkaian, Gueñes herrian 44,2°C markatzera iritsi zen termometroa; Araban, Laudion, 42,8°C neurtu zituzten; Bilbon ere 40°C-tik gora egin zituen; eta, Donostian, berriz, 39°C. Iruñean 40,6°C pasatxo neurtu zituzten, 2012ko udako errekorra berdinduta. Eta Ipar Euskal Herrian ere antzeko datuak jaso zituzten, Kanbon, esaterako, 40,1°C egin zituen.

“Klima aldetik, gure hiriak ez dira egoera latzena dutenak, baina hemen ere izaten ditugu bero-bolada handiak, eta, zentzu horretan, Bilbo da urbanizatutako azalera handiena duena, eta horrek bero-irla efektua sortzeko auke-

rak handitzen ditu”, adierazi du Iñigo Azkaratek. Hiriguneetan eta asko urbanizatutako tokietan gertatzen den tenperaturaren igoera fokalizatuari esaten zaio bero-irla efektua, hurbileko landa-inguruarekin kontrastean. Arkitektoak nabarmendu duenez, dena den, berez, barrualdeko hiriek dute bero-boladak jasateko aukera handiagoa, Iruñeak eta Gasteizek, kasu.

ESTRES TERMIKOA

Pertsonentzat eroso den egoeratik aldentzen den pertzepzio termikoari esaten zaio “estres termiko”, eta hotzarekin ere erlazionatuta egon daitekeen arren, gurean, beroari lotuta doa gehienetan. Azkaratek azaldu duenez, PET indizea (ingelesezko *Physiological Equivalent*

Temperature) da estres termikoa neurtzeko gehien darabiltena: “Batezbesteko tenperatura erradiatzailea da indize horretan eragin handiena duena, alegia, eguzkiaren erradiazioa, baina airearen tenperatura, hezetasun maila eta abiadura ere kontuan izaten dira”.

Erradiazioa bi motakoa izan daiteke: uhin laburrekoa, alegia, eguzkitik zuzenean datorrena edo hainbat materialetan islatzen dena; eta uhin luzekoa, materialek errebotatu ez, baina xurgatu egiten dutena, gerora, energia hori pixkanaka emititzeko.

Itzala sortzea da estres termikoari aurre egiteko modu eraginkorrena, baina itzala zerk eta nola sortzen duen ere kontuan izan behar dela nabarmendu du arkitektoak: “Hirietan eta herrietan

Adibideak munduan

Munduko hirien artean eredu gisa har litezkeen zenbait adibide aipatu ditu Iñigo Azkarate arkitektoak: Singapur, Kopenhage, Vancouver, Auckland, San Frantzisko eta Berlin. Eta, etxera begiratuta, Gasteiz.



WIKIPEDIA

SINGAPUR. 2030erako milioi bat zuhaitz landatzeko konpromisoa hartu du eta, ordurako, eraikinen %90 parke batetik asko jota 400 metro-tara egonen dela kalkulatu da. Hirian martxan jartzen diren proiektu arkitektoniko guztiek jasangarritasun irizpideak bete behar dituzte: esaterako, terraza guztiek lorategia eduki behar dute eta landare-estalkiak; fatxada berdeak gero eta ohikoagoak dira hiriko eraikinetan. Araudiki honela dio: "Beheko solairuan eraikitako lur guztia berriz hornitu beharra dago estalkian, azalera bereko espazio berdearekin".



HENNING MARTIN THOMSEN

KOPENHAGE. Hainbat diziplinako profesionalak elkartu dira biodibertsitate handiko hiri eredurako pausoak emateko. Le Corbusier arkitekto ezagunaren "bosgarren fatxada" kontzeptua berreskuratu dute: teilatuak erabiltzen dituzte horietan baratzeak, lorategiak eta animalia haztegiak jartzeko. Eraikin berrietan teilatu berdeak jartzeko araua dute, eta hiriaren azaleraren laurdena gune berdeak osatzen dute. Argazkian, OsterGro hiri baratzea eta jate-txea, hiriko teilatuetan.



DARYL MITCHELL / FLICKR CC

VANCOUVER. Aitzindaria izan zen jasangarritasunerako bideak jorratzen. 2009an, Hiri Berdeagorako Ekintza Taldea proiektua jarri zuten martxan aldaketa klimatikoaren aurka egiteko, eta fokua administratibotik harago, komunitatean jarri zuten. Politikari, erakunde, elkarte, enpresa nahiz herritar taldeak batu dira proiektura, eta hiru alor nagusi jorratu dituzte: energia berriztagarriak, elikadura jasangarria eta turismo jasangarria. Hiriko hainbat espaziotan baratzeak, lorategi komunitarioak eta hiri-etxaldeak dituzte martxan: argazkian, gasolindegia zegoen tokian sortutako baratze komunitarioa.



JÖRG KANTEL

BERLIN. 2.500 parke publiko baino gehiago ditu. Hiriaren azaleraren herena gune berdeak hartzen dute; guztira 300 kilometro koadro inguru. Parkerik handiena, Tiegarten, 210 hektareako gune berdea da, eta basoetan bizi diren zenbait animalia espezie aurki daitezke bertan, oreinak eta basurdeak kasu. Argazkian ikusten den Tempelhofer Feld parkea da beste gune berde berezi bat: izen bereko aireportua 2008an itxi zuten eta 386 hektareako gune irekia berreskuratu zuen hiriak. Motordun ibilgailurik gabeko parke publiko horretan hainbat gune berde daude eta beste jarduera askorekin batera, hiri baratzeak lantzen dituzte.



WIKIPEDIA

GASTEIZ. 2012an European Green Capital izendatu zuten eta 2019an Global Green City saria eman zioten. Besteak beste, hiriak biztanle bakoitzeko 42 metro koadro gune berde dituela kalkulatu da, eta edozein herritarrek, oinez, bi minutu eta erdi baino gutxiagora duela berdegune bat. Hiriko kale eta parkeetan guztira 115.000 zuhaitz inguru daude, eta horiei Eratzun Berdeko parkeetakoak gehitu behar zaizkie. Hiria inguratzen duten parkeen multzoa da Eratzun Berdea, guztira 833 hektarea dituen. Argazkian, Salburuako hezegunea.

itzala ematen duten elementu nagusiak eraikinak dira. Berez, ona izan daiteke itzal hori, baina, paraleloki, galerak ere sor ditzake. Zergatik? Eraikin horiek egiteko erabili diren materialen arabera, itzala eman bitartean beroa pilatu ere egin dezakete, eta gero, pilatutako bero hori emititu". Eraikina zenbat eta altuagoa izan, itzal handiagoa emanen du, baina, aldi berean, pilatutako beroa ahitzeko ere denbora gehiago beharko du. "Beraz, denak du bere alde ona eta txarra, kontuan izan beharrekoa", gehitu du ikerlariak.

ARBOLAK, ITZALAREN IZARRAK

Zuhaitzen itzalen onurak aztertzean, horien zenbait faktore izan dituzte kontuan: "Zuhaitzen itzala bere bolumenak eta hostoketa ezaugarriek baldintzatuta dago beti. Zenbat eta hostoketa sarriagoa izan, baxuagoa da transmisibilitatea". Eguzki erradiazioa eteteaz gain, bestelako abantailak ere badituzte zuhaitzek, besteak beste, bapore transpirazioaren bitartez giroa freskatzeko duten gaitasuna. Hala ere, zuhaitzek ere badute txanponaren beste alde, gehiegi baldin badaude, kaleek eta eraikinek xurgatu eta pilatu duten beroa ahitzeko oztopo izan daitezkeelako. "Horregatik da garrantzitsua zuhaitzak estrategikoki eta plangintza bidez kokatzea", esan du arkitektoak.

Bertako zuhaitz espezieak aztertu dituzte ikerketan, gure ingurune fisiko eta klimatikora egokituak daudelako. "Lehen pausoa zuhaitz hostozabalak aukeratzea izan da, eta horien barruan, neguan hostoa galtzen dutenak". Zergatik? Bada, kantauri isurialdeko kliman, udan beroa eteteko itzala behar den bezala, neguan eguzkiaren erradiazioa ere beharrezkoa delako, hotza leuntzeko. Emaizta onak ematen dituzten bertako espezieen artean daude hainbat astigar mota, ezkiak eta platanusak, besteak beste. "Kalean jar daitezkeen espezie egokiak dira horiek, ez da kasualitatea horiek izatea nagusi gure hirietan".

Azkaratek azaldu duenez, zailagoa da estuak diren kaleei zerbitzu ematea, tamaina handiagoko espezieak sartzeko oztopoengatik. "Baina berdeguneetan eta espazio zabalagoetan haritzak, pagoak, arteak, lizarrak eta horrelakoek ere oso emaitza onak ematen dituzte", gehitu du. Bertako espezieetatik hasi dira, baina klima aldatzen eta berotzen badoa, ez dute baztertzeko bertakoak ez baina portaera ona duten beste espezie

25°C-ko alde



Egiazko faktore meteorologikoak erabilia, estimazioak eta neurketak egin dituzte Azkaratek eta bere taldeak, batezbesteko temperatura erradiatzailea aztertzeko. Temperatura hori 45-50°C ingurukoa denean, bero egoeratzat hartzen da. Bilbon, udan, eguerdiko orduetan, 60°C-tik gorako temperaturak jaso dituzte, eta neurketa bidez egiaztatu dute zuhaitz baten itzalean 20°C edo 25°C gutxiago daudela. "Desberdintasun ikaragarria da, 60°C-tik 35°C-ra jaistea zuhaitz baten itzalean", dio.

Itzala sortzea da estres termikoari aurre egiteko modu eraginkorrena, baina itzala zerk eta nola sortzen duen kontuan izan behar da

Kaleetan hostoa galtzen duten bertako zuhaitzak jarrita, udan itzala eta neguan eguzkia sartzeko bermatzen da

batzuk ere ekartzeko aukera: "Zaindu beharko litzateke espezie horiek eragin negatiborik ez izatea inguruan, inbaditzaileak ez izatea, hemen bizitzeko eta ugaltzeko aukera izatea... ezin dugu etengabe kanpotik ekarri behar den espezie bat bertakotu".

HORMIGOIA ETA ASFALTOA SAIHESTEA, HOBE

Hiri asko hasiak dira aterpe klimatikoaren mapak diseinatzen eta planteatzen, baita Euskal Herrian ere. Bilbo da adibide bat. 2022ko udan 130 babesleku klimatiko aurkeztu zituen udalak, eta beste hiri eta herri askotan ere antzeko proposamenak egin dituzte. Barruko babesleku klimatikoak –liburutegi, kirol ekipamendu, museo, garraiobideen geltoki...– eta kanpokoak –berdeguneak, itzalguneak, ura duten espazioak...–daude tartean. Aterpe klimatikoaren mapetan aurrerapenak egon arren, Baso Biziak plataformako Edu Zabala kideak aurtengo udan salatu du barruko aterpe klimatiko asko itxita egon direla udako egunik beroenetan, eta bertako langileek ez dutela gaiarekiko inongo formakuntzarik jaso. Planak paper hutsean ez gelditzeko, baliabide pertsonal eta ekonomikoak jartzea ezinbestekoa dela gogorarazi du.

Aterpe klimatikoek eta zuhaitzekin itzala sortzeaz gain, hiriek epe motz edo ertainera begira har dezaketen beste neurri bat kaleen eta bertako altzarien materialari buruzkoa da. "Material zehatz batek erradiazioa isolatzen duen gaitasuna da albedoa. Zenbat eta albedo baxuagoa, material hori gehiago berotuko da", azaldu du arkitektoak. Albedoa-rekin batera, materialen emisibilitatea ere kontuan hartzekoa da, alegia, materialak xurgatutako energia emititzeko duen gaitasuna. "Albedo txikiko eta emisibilitate handiko materialak saihestu behar dira, material hotzagoak erabilia".

Adibide zehatzetara etorrira, gure hirietan asko ikusten diren eta beroarekin oso gaizki funtzionatzen duten bi material aipatu ditu Azkaratek: asfaltoa eta hormigoia. "Beste material 'zeramikoago' batzuk askoz aproposagoak dira, edo ura filtratzen uzten duten materialak... hor ere badago bide bat oraindik gutxi garatu dena, baina gauzak hobetzeko aukera ematen duena". Asfaltoa eta hormigoia baino material egokiagoak dira harria, zeramika edo egurra, besteak beste, eta horien koloreak ere badu eraginik: zenbat eta azalera argiagoa, bero gutxiago xurgatuko dute.



ARNAITZ RUBIO

IÑIGO AZKARATE arkitektoa da, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle elkartua eta Deustuko Unibertsitateko irakasle bisitaria. Doktoretza tesi hau egin du: *Beroak sortutako estresa gutxitzeko metodologia, kaleetan zuhaitzak jarrita.*

HIRIEN BIRNATURALIZAZIOA, ETORKIZUNERAKO GAKO

Estres termikoari aurre egiteko hiri eredu perfektua zein litzatekeen galdetuta, Azkaratek azpimarratu du eraikuntza, urbanizazio eta eremu naturalen arteko oreka zaindu behar dela: “Hiriak, kaleak eta espazio publikoak pertsonentzat izan behar dute, ezinbestekoa da haien beharrak jartzea erdigunean. Azalera larregi izan ditugu beste elementu batzuei bideratuta, eta justu stres termikoari begira oso gaizki funtzionatzen dutenak”. Etxegintzaren booma ekarri du gogora, hiri eta herriak urbanizazioekin eta zementuarekin “kolonizatu” zirenekoa, eremu naturalen kalterako.

Kontrako norabidean joan beharko lirateke hirigintza eta arkitektura, Azkarateren ustez, etorkizun hobea bermatze aldera: “Hirien birnaturalizaziora jo behar genuke, zuhaitzen onurak ez baitira stres termikoari soilik begira-koak. Psikologikoki, klimari begira, eta kutsadura akustikoari begira ere onurak dakartzate”. Baina berdeguneak sortzearen abantaila horiek beste irizpide batzuekin talka egin dezaketela ere nabarmendu du: “Garraio sistema publikoa garatzeko, ordea, egokiagoak dira hiri dentsuak”. Hainbat alorren arteko oreka bilatzea izanen da erronka. “Berdeguneak sortzea eta horien artean pertsonen eguneroko egiten dituzten ibil-

bideetan termikoki babestutako guneak bultzatzea da helburua. Babes klimatikoak sortzea, itzal planak abian jartzea...”, aipatu ditu, besteak beste, epe luzera begirako neurrien artean.

Bide horretan, oso lagungarria litzateke, arkitektoaren ustez, Europatik araudiak ezartzea. “Momentuz, irizpideak soilik ezarri dira Europar Batasunetik, ez dago stres termikoari lotutako ezer araututa. Garai batean ez zegoen zaratarekin lotutako ezer arautua, baina orain, hirigintza planetan beti dago azterketa akustikoa, horretara ohitu egin gara. Faktore berriak ezartzea posible da, eta onuragarria litzateke”, aldarrikatu du. ●

KOLABORATZAILEAK

Jendearen joan-etorriak



Reyes Ilintxeta Boliviako txolita eskalatzailleekin, aurtengo maiatzean.

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Uste dut maite ditudala erreportaje potoloak bainoago elkarrizketak, mintzatzen delako, zeharka, historia oso batez, historia txikietatik. Reyes Ilintxetaren *Jendeak* ataleko entrebistek sarri eraman naute elkarrizketatuaren etxeko sutondoraino eta ezagutu ditut kontatzeko asko zuten pertsonak. Baina bukatu ditu hemengo lanak Ilintxetak eta berarekin hitz egin dugu, Amets Arangureni lekukoa pasa berritan.

Nafarroa inguruko jendeak ezagutzeko atea irekiko zuen norbaiten bila zebiltzala egin zion Xabier Letonak lan honetan hasteko proposamena, duela jada hamahiru urte. 2011ko maiatzean hasi zen eta, oker ez badago, 192 elkarrizketa egin ditu ordutik –kontatu ditu etxean ondo gordeta dituen aldizkariak, audio eta argazki guztiekin batera jasoak-. “Niretzat

plazer bat izan da urteotan guztiotan elkarrizketa hauek egin ahal izatea ARGIA bezalako erreferentziatzko hedabide batean”, azaldu digu. “Beren etxeko atea ireki dizkirate beraietako askok, beren toki intimoenetan sartzen utzi didate eta une bereziak sortzen dira”, esan digu, elkarrizketatutako pertsona horiei esker onez. “Gainera, nik nahi izan ditudan pertsonak elkarrizketatu ahal izan ditut, zerbait interesgarria zutelako hautatu ditut eta abiapuntu hori kazetariarentzat izugarria da; horrela lan egiteko askatasuna eta aukera izatea luxu bat da, ARGIAk eskaini didan luxu bat”, azpimarratu du.

Denbora asko baloratzen duenetakoa da Ilintxeta. Denbora hartu duena elkarrizketa bakoitza prestatzeko, denbora hartu duena pertsona horrekin lasai hitz egiteko, elkarrizketari zukua ateratzeko,


gero irakurleak patxadaz irakurtzeko mamia eduki zezan.

EUSKARABIDEA ETA HEMENDIK AURRERAKOAK

Jendeak atalaren lekukoa pasata, momentuz bukatu ditu kolaborazio lanak ARGIA; baita Euskalerrria Irratiko 32 urteko ibilbidea ere. Euskarabidean ariko da hemendik aurrera lanean, “euskarari beste ertz batetik bultza nahian, administrazioan eta gobernuan ere bai baitago zer eginik”, azaldu digu. Burubelari horretan zentratuta, Ilintxeta kazetaria *Diario de Noticias*-en eta *Zer Berri* aldizkariko kolaborazio txikietan irakurtzen jarraitu ahal izango dugu.

Milesker paperera jende hori guztia ekartzeagatik, Reyes, plazera irakurleona izan da. ●

Victoria Woodhull, lehen hautagaia



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

New York, 1970eko apirilaren 2a. *New York Herald* egunkariak Victoria Woodhull (1838-1927) ekintzaile eta brokerraren eskutitz bat argitaratu zuen, 1872ko AEBetako presidente hauteskundeetarako hautagai-zaren berri emanez. Inoizko hautagai gazteena zen; 34 urte izango zituen hauteskunde egunean. Eta, gainera, AEBetako presidente izateko lehen emakumezko hautagaia izan zen. Hautagai izateko eskubidea zeukan, bozkatzeko aukerarik ez, ordea. AEBetan emakumeek mende erdi geroago lortuko zuten boto eskubidea.

Eskubide horren alde, AEBetako kongresuko batzorde batean hitz egin zuen lehen emakumea ere izan zen. 1871ko urtarrilaren 11n izan zen hori. Woodhullek esan zuen emakumeek boto eskubidea lor zezaten ez zela beharrezko konstituzioa aldatzea edo zuzenketarik sartzea, jatorrizko testuak berak jasota zeukala, ondo interpretatuz gero. Kongresukideak ez zituen konbentzitu, baina mugimendu sufragistaren hainbat buruzagi bai. Gainera, sufragisten mugimenduan profil berezia zen Woodhullena; sufragista gehienak goi burgesiakoak ziren eta Victoria, aldiz, pobreziatik zetorren.



Victoria Woodhull AEBetako kongresuan emakumeen sufragioaren alde hitz egiten, 1871n

Hamar anai-arreben artean zazpigarrena, aita iruzurgilearengandik tratatu txarrak jaso zituen eta txikitatik igarle, petrikilo eta predikari moduan lan egitera behartu zuen; publikoan hitz egiteko trebezia lortu zuen behintzat.

Bi ezkontza, hainbat seme-alaba, eta lan prekario mordo geroago, 28 urte besterik ez zituela, New Yorkera joan zen Tennessee Clafin ahizparekin batera. Eta hor ere aitzindari izan zen. Biak Wall Streeteko lehen

emakume brokerrak izan ziren eta berehalako arrakasta lortu zuten, nagusiki emakumezko inbertitzaileen eskutik. Bildutako dirutza, besteak beste, *Woodhull and Clafin's Weekly* aldizkaria sortzeko erabili zuten.

Maitasun librearen defendatzaile sutsua ere izan zen. 1871ko azaroan, New Yorkeko Stainway Hallen “maitale libre naiz!” aldarrikatu zuen 3.000 entzuleren aurrean, txistuen –eta txalo gutxi batzuen– artean. Burtsako arrakastak eragindako mesfidantzari eskandalua gehitu zitzaion orduan. Eta astekarian argitaratzen zituen edukiek kritikak hauspotu zituzten. 1972an Henry Ward Beecher reberendo ezagunaren aurkako artikulua bat argitaratu zuten eta Beecherrek eduki lizuna argitaratzegatik salatu zituen. Bi ahizpak atxilotu zituzten eta hila-

betea eman zuten espetxean. Hauteskunde eguna ere giltzapean igaro zuten. Oso boto gutxi lortu zituen Woodhullek.

Beste bitan ere saiatuko zen presidentetzara iristen. Alferrik. Eta sufragistek ere bizkar eman zioten, “bere anbizio politiko pertsonala lehenesteagatik”. 1880an mugimendu sufragistari buruzko lehen liburuetako batean, ekintzaileen zerrenda luzea jaso arren, Victoria Woodhullen ize-nik ez zuten aipatu ere egin. ●



Anglosaxoi hitza arrazista da?

Nottinghameko Unibertsitateak Anglo-saxoiei eta Vikingoei buruzko ikasketak masterrari izena aldatu dio: Ingalaterrako Goi Erdi Aroko ikasketak. Cambridgeko Unibertsitateko *Anglo-Saxon England Journal* aldizkariari ere izen aldatu zioten lehenago: *Early Medieval England Journal* da. Joera hori AEBetatik dator, anglosaxoi terminoa txuri supremazistek erabiltzen dutenez, kutsu arrazista dauelako.

Ingalaterrako hainbat historialari eta arkeologo, ordea, hitza erabiltzen jarraitzearen alde agertu dira, testuinguru akademikoan behintzat, hitzaren jatorrizko esanahiari eutsiz: angloak, saxoiak eta jutoak germaniar jatorriko herriak dira, Erromatar Inperioaren gainbeheraren eta normandiarren inbasioen artean Britainiar Uharteak okupatu zituztenak. ●

TRENETIK SALTO EGIN NAHI



JOSEBE BLANCO



NEIKER.EUS

Hemen gatoz, atzera ere, hausnarra berritzera. Edo behintzat saiatzera. Edo horrekin amestera. Ez dakit, ordea, berritik zer izango dugun; izan ere, antza, munduak lehengo lepotik burua jarraitzen du. Bar-katu okerra: gizakiok jarraitzen dugu lehengo lepotik.

Egia esan, albistegi gutxi entzun ditut hilabeteotan. Tren horretako bidaiari ez nintzelakoan, neure buruari errepikatzen nion ez nuela tren horretara igo nahi. Alferrik, atearen kontra, baina, bai, neu ere banintzen bidaiaria. Ez da samurra izan trenean esnatzea. Esnatu naute zurikeriak eta teknologiaren ameskeriak, biek batera.

Alde batetik, halako batean, eta merkealdietan, onartu zen *Natura Lehengoratzeko legea*, han, Europan. Jarri dioten izenburua polita da, ezin ukatu. Halere, estatuek bete beharko dute mamiz haizez beteriko opila. Legearen helburuetan murgilduz gero, naturazaleak literatura atsegina topa lezake; esaldi batzuen doinua ezin atseginagoa da, sirenen kantu

eztien antzerako melodia. Edozein kasutan, estatuek hala erabakita, zonalde batzuk lege horren aplikaziotik kanpo gera daitezke bi arrazoirengatik: defentsa nazionala eta energia berriztagarrien inplementazioa. Harrapazank Txiribiton!

Bestaldetik, irailaren 7ko egunkarian *Zutikako nekazaritza* izenburua zuen erreportajeak zur eta lur utzi ninduen; martxan egon arren, prest nengoen trenetik salto egiteko. Neikerrek Derion duen zentroan eraiki dute 50 metro koadro dituen espazio kontrolatua non landareak hazten dituzten hiru mailatan. Momentuz, landare usaintsuekin ari dira.

Ez omen dator nekazaritza tradizionalari kontra egitera; tomate hidroponikoak azaldu zirenean, aurkako ahotsek iragarri zuten lurrarekin lantzen den nekazaritza desagertu egingo zela, eta ez da hori gertatu. Honekin, berdin. Askatasuna behar ei dugu nahi dugun moduan lan egiteko, erosi ere nahi dugunean eta askatasunez.

Askatasunaz gain, abantailak baino ez dauzka, ikerlariaren arabera, apaletako

nekazaritza futuristak: urte osoan zehar izango da uzta jasotzeko aukera, hamabost egunean behin jaso, eta, gainera, ekoizpena 50 aldiz handitu daiteke. Eta ez hori bakarrik, klima aldaketak dakarren ezegonkortasunak ez du eraginik izango, atmosfera isolatuan haziko baitira landareok. Ureztatze sistema automatikoa, argitasuna, temperatura eta hezetasuna uneoro kontrolpean, baita CO2 isurketak ere. Izena ere abantaila: *indoor vertical farming*. *Basque* gehituz gero, txapeldun.

Neikerrek proiektu hau abiatu zuen ikusita enpresen artean interesa zegoela, merkatuan lehiakortasuna hobetzea-ri begira. Populazioaren hazkundeak eta klima aldaketak bilakatu dute egitasmoa premiazko. Helburuak bitan laburbildu omen daitezke: espazioaren erabilera optimizatzea eta ekoizpen jasangarria bermatzea.

Hemen hil naiz. Trenean bertan.

Ez baitzait jasangarri egin bi gertaeren konbinazioak sortutako ikara. ●

A ZE FAUNA!

ADIORIK EZ, J.



NAGORE ZALDUA MENDIZABAL
ARANZADIKO KIDEA

A ze fauna! atalaren lehen denboraldian, olatuz-olatu hainbat itsas izaki aurkeztu dizkizuet txoko honen traineruko kareletik. Ordea, bigarren denboraldiko nire lehen artikulua lagun bati gorazarre egin eta bere lanaren garrantzia azpimarratzeko erabili nahi dut: Wallace J. Nichols aurkezteko. "J", itsas kontserbazioaren ikur izan da: itsas biologoa, uraren maitalea, dortoken frikia, esploratzailea, mugimendu berrien eraikitzailea, aita eta hitz erabilgarrien sortzailea. Hori guztia, eta askoz gehiago.

1999an South Padre Island-en (AEB) egin zen itsas dortoken biologia eta kontserbaziorako sinposioan ezagutu nuen. Berehala bereganatu ninduen haren eskuzabaltasunak eta ezagutza itzelak, zuen denbora... urria izanagatik ere, beti baitzegoen prest behar zuenarekin partekatzen.

Ekainean kontserbazio-komunitateak haren heriotzaren berri izan du. Hala, altxor ordezkazina galdu dugu, baina ez dut zalantzarik *J's blue mind* (adimen urdina) filosofiak aurrera egingo duena, belaontzi baten uharak bezala. Kareletik, hitz hauek, zuretzat:

Ozeanoaren kontserbaziorako hurbilketa berri baten aitzindari izan zara, eta zientziak alde batera utzi izan duen egitate bat erdigunean jartzea lortu duzu. Adimen urdina piztu duzu gudan: gizakiaren ongizatean, itsaso edo ur-multzo batetik –ur jauzi, erreka edo putzu batetik– gertu egoteak, gure burmuinean dituen eragin positiboen aldeko apologian eredu izan zara, neurozientzialari izan gabe. Erakutsi duzu uretatik gertu, barruan edo uretan edozein modutan, emandako denbora ona dela, gure ongizate kognitibo, emozional, psikologiko, sozial, fisiko eta espiritualarentzat. Lan

WALLACE J. NICHOLS

(New York, 1967-2024)

ADIMEN URDINA:

Neurozientzialariak eta psikologoak uretako adituekin eta artistekin harremanetan jarri ditu Wallace J. Nicholse filosofia honek, eta galdera berriak egin eta erantzuteko aukerak ireki ditu, sektore asko eraldatze bidean jarriz. Besteak beste: osasuna eta ongizatea; hezkuntza eta hazkuntza; artea, arkitektura eta diseinua; higiezinaren eta hirigintzaren plangintza; kirolak eta aisialdia.

BLUE MIND LIBURUA: 2014ko udan Little Brown & Company-k argitaratua, berehala bihurtu zen *bestseller* AEBetan, eta hizkuntza askotara itzuli dute.

handia egin duzu, gizakiok urarekiko dugun harremanari dagokion garrantzia eman diezaiozun. Eta era berean, ur horien osasuna mantentzearen garrantziaz jabetuta, kontserbazioan buru-belarri aritu zara, zure izaera nekaziaz, bizi osoan. Bejondeizula!

Zure ondareak ur isuri baten moduan bide berriak irekiko ditu eta olatu erraldioen gailurretan barrena egingo du bere bidea. Eskuz esku, Adimen Urdina mugimenduaren ikur bilakatu diren milaka kanika urdinek itsasorik gabeko itsasoak sortuko dituzte mundu zabaleko burmuinetan... eta eraiki duzun komunitate horren bulkada etengabearen babesean, zabalduz joango da itsasoarekiko maitasuna eta babesa; Monte Rey-ko Badiatik Haizearen orrazira, eta beste hainbat itsasotara. Gure bizileku urdin hauskorra babesteak merezi duelako.

Wish you water (Ura opa dizut). ●

SAGARDOAREN KURKUBITATIK PLASTIKORA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Plastikoan bilduta saltzen dizkigute zurututako sagarra, mandarina, ahukatea eta abar. Eta ez gaitu lotsagorritzen. Gure sukaldeari bistadizo bat ematen badiogu plastikoa nagusi dela jabetuko gara. Hondakinen zatirik handiena plastikoen ontzira doa, janarienera edo organikora baino askoz ere gehiago. Era berean ontzi, potu, lanerako ohol eta trangadel dena plastikozkoa. Plastikoa jaten dugu eta plastikozko jaten gaitu. Garbitasunaren izenean eta modernotasunaren bedeinkazioaren bila plastikoa erabat nagusitu zaigu. Nahitaez etorriko da, lehenxeago edo geroxeago, plastikoa tamainaratu beharra, bizi nahi badugu behintzat. Beira, zura, papera eta abarrek hartu beharko dute indarra eta presentzia, gure elikadura katean parte hartzen duten elikagaien inguruko trasteria zabal horretan.

Orain baino aurreragoko plastikorik gabeko mundura eraman dezagun burua. Landare jendetik eratorritako gaiak ziren lehen nagusi gure bizimoduan. Soka eta lokarri, zaku, saski, zesto, otarre, kanpaza, zorro, poltsa, kaiku, abatz, edalontzi, platera, erretilu eta azpil, barrikote, ontzi, tina, kuela, suila, arratzalde arratz eta boja, malats, koilara-furtxeta, irazteko eta abar egiteko landareen hosto, azal, adar, egur eta zur erabiltzen ziren; baita animalien-gandik sortutakoak ere, baina batez ere landarekiak ziren.

Kuiiei begira nagoela etorri zait erretolika hau. Milaka urtean kuiak izan dira gure ontzi nagusiak. Zura eta buztina eta larrrua lantzen ikasi aurretik, kuia landareak ematen zizkigun ontziak, ia landu beharrik gabe erabiltzeko prest. Fruitu aleak lehortu, hustu eta kitto. Kuiak Ameriketatik ekarri genituen; beraz, berdantzarteko amodioa da haien eta gure artekoa.

Bazen baina Amerika han zenik ere usaintzen ez zuten euskaldunen garai-ko kuia bat. Agi danean Afrika aldetik

ekarritakoa, gu bezala. Agi danean baratzeak landu aurretik ere gurekin genuen. Batean eta bestean beretzako izena “edankuia” topatu dut; “kurkubita” ere jaso dago, bere aldaera mordoxkarekin; gure etxean “kurkubia” esaten diogu. Izen zientifikoa *Lagenaria siceraria* du; lehen *Cucurbita lagenaria* bezala sailkatua zegoen, baina *Cucurbita* generoa Ameriketatik ekarritako kuiena da. “*Lagenaria*” izena grekoko *lagenos* matrazetik dator eta “*siceraria*” *skr* erro semitikotik. Erro hori edari alkoholduak izendatzeko erabiltzen zen, eta sagardoa esateko Europako hitz gehienek iturria da: *cider*, *cidre*, *sidra*, *cidra*, *sidro*, *cidro*, *sidru*, *sidrs*, *sidras*, *sèidear*, *seidr*, *sistr*, *cydr*, *cuðp*, *siideri* eta abar. Mediterraneo aldean “ardoaren kuia” esaten diote, batak bat mahatsaren ardoa edaten zutelako, baina guk “sagardo-kuia” esan beharko diogu, bere izen zientifikoak dioen eran, eta euskaldunok aspaldi haietan emango genion erabilera nagusia izango zelakoan... Garai haietan sagardorik ez zen izango noski, eta “pitar-kuia” esatea hobetsiko du zenbaitek...

Kurkubita aproposa da elikagaiak jaso eta maneiatzeko, batez ere likidoak; hortik “edankuia”. Donejakue bidetako erromesek kantinplora gisa bakulu makilaren muturrean lotuta zintzilik eramaten zuten, egarriak jota ere...

Laster jasoko da kurkubita uzta; ondo lehortuta, barruko mamia erabat hauts egingo da eta haziak besterik ez ditu izango. Haiak ateratzeko eta gero kortxoa sartzeko adinako zulotxo egin eta horra botila dotorea. Ez plastiko, ezta beira, ez metal... Kurkubita!

Erein urtero bere haziak eta berritu etxeko ontzidiaz sukalde edertuz. Eta Oñatiko Gesaltza baserriko Graziano Anduaga zenak bere *Aitonaren uzta* bilduman utzi zuenari heldu: “Edaten zuela bazkarian kurkubita bat ardo”. ●



WHY NOT NANO? CC-A-3.0-U

AURKEZPEN BEREZIAK

Ilargia eta landareak

2025eko agenda

Jakoba Errekondo agenda aurkeztuko du eta kontsultategia eskainiko du; Antton Olariagak agenda honetarako sortu duen “piztiarioa” erakutsiko du eta Unai Agirrek bertso zaharrak kantatuko ditu.

NOIZ: Irailak 26, osteguna, 19:00etan.

NON: Tolosan, Topic-en.

Agenda eskuratzeko: 15 euroan salgai azoka.argia.eus webgunean eta zure herriko liburu denda eta landare kooperatiban.

Hitzaldia antolatu zure herrian: solasaldiak@bizibaratzea.eus



BIRIKA PERMAKULTURA “LURRA LANTZEN HASI AURREKO DISEINUA GAKOA DA PERMAKULTURAN”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2014an sortu zuten Birika Permakultura proiektua Leioako lursail okupatu batean. Jurgi Uriarte Idiazabalek eta beste bi kidek jarri zuten martxan egitasmoa. “Lursail hartatik bota egin gintuzten gerora, aparkalekua egin behar zutelako, eta, etenaldi baten ondoren, bakarrik segitu nuen proiektuarekin”, azaldu du Uriartek. 2016tik buru-belarri ari da proiektuan, permakulturan oinarritutako sistemak sortzeko diseinu lanak egiten.

PERMAKULTURA, BIZITZEKO MODUA

Teknika asko uztartzen dira permakulturan, Uriartek nabamendu duenez. “Permakultura ez da ortuko teknikara mugatzen, hori baino gehiago da, elementu asko ukitzen ditu: ura eta energia lortzeko bideak, plastikoa gutxitzea, gas-tua txikitzea... bizitzeko era bat da”. Horretarako, beharrezkoak dira diseinua eta plangintza, eta alor horretan dihardu Birikako kideak, baratzea edo bestelako



Argazkian, Jurgi Uriarte Basaurin tailerra ematen.

ekoizpen sistemak martxan jarri nahi dituztenei aholkularitza eta laguntza ematen. “Auto bat fabrika sortu baino lehen ordenagailuan simulazioak egiten diren moduan, ezinbestekoa da lurra lantzen hasi aurretik ere planoak, neurketak eta azterlanak egitea”.

Formakuntza eta tailerrak ere eskaintzen ditu Uriartek, eta Mungiako hiru hektarea eta erdiko lursailean barazkiak eta arrautzak ekoizten. “Ekologikotik harago doa ekoizpen eredu hau, lurraren mikrobiologia da agintzen duena. Izurriteen aurka *Bacillus thuringiensis* erabiltzea oso ongi ikusia dago, ekologikoa da, baina ez da selektiboa, mikrobiologia ere akabatzen baitu”, azaldu du. Erabili izan du berak ere, tomateetako harrak akabatzeko, esaterako, baina harrak landarea erdi gaixorik dagoen seinale direla dio. Espektometroa erabiltzen du berak landareen ‘osasuna’ neurtzeko: “Teleskopio moduko tresna bat da, tomatearen hiruzpalau tanta bota eta eguzkiari begiratuta, tomate horretan disolbatuak dauden elementuak neurtzen

ditu: azukreak, mineralak...”. Zenbat eta elementu gehiago, erasotzaileetatik babes-tuago dago landarea.

AKUAPONIA ETA BIDEOGINTZA

Akuaponia sistemak ere lantzen dituzte Birika Permakulturan. Ez nahasi, akuaponia ez da hidroponia. “Akuaponia sistemetan, arrainak jartzen dira uretan; ur horrekin landarea elikatzen da, eta, aldi berean, landareak ura purifikatzen du, zikloa itxiz. Proteina biziak eta landareak dituzu sistema berean”, azaldu du. Elikagaiak ekoizteko sistema oso efizientea dela azaldu du Uriartek, Indonesian eta inguruko beste zenbait herrialdetan asko erabili izan dena.

Eta aurretik aipatutako jarduera guztiak bideogintzarekin uztartzeko tarteak ere hartu dute Birikan. Haien youtubeko kanalean permakulturrari, ortugintzari, akuaponiari eta nekazaritzarekin lotutako beste gai askori lotutako ehunka bideo dituzte. “Teknikak plazaratzeko bide bat da, bederatzi urteotako lana jasoa dago kanal horretan, edonoren eskura”, amaitu du. ●

ekologikoa, baserritik mahaira!



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi

Babesleak:



Europar Batasunak
kofinantzatuak



“ ”

Bizi gara zuzentasun politikoaren garaian, ‘beef’-aren kultura ez da ulertzen

Raimundo el Canastero

2021ean sortu zen Lizarran Raimundo el Canastero taldea, eta iaz ikusi zuen argia haien lehenengo diskoak –*N.T.E.R.*–. Kaxoia, gitarra, ordenagailua eta hiru lagun langabezian: Julen Arbizu (Lizarra, 1995), Imanol Viñarás (Lizarra, 1995) eta Mikel Beltza (Iruñea, 1996). Tabernan egoteko edo musean aritzeko geratzen direnak bezala hasi ziren elkartzen ostiralero. *Runba fusio* musika estiloa egiten dute, “ez genekielako runba puroa egiten eta *fusio* horrek ematen dizulako aukera nahi duzuna egiteko”.

 AMETS ARANGUREN ARRIETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Raimundo el Canasterok Lizarra du epizentro. Zein pisu du horrek taldean?

Julen: Hemen sortu zen taldea. Lizarran beti egon da musikarekiko afizio handia. Gaztetxean musika gela bat zegoen, hortik talde asko sortu dira eta kaleetan asko jo izan dugu. Taldearen sorreran garrantzia handia du Lizarrak.

Imanol: Eta musika egiterako orduan ere bai, ezta? Nahiko lokalak izaten dira sartzen ditugun erreferentziak. Adibidez, *Madero*-ren abestia da Lizarrako batukadak jotzen zuenaren *estribillo* bat.

Julen: Melodiak ere bai, eta jerga gehienbat.

Mikel: Esango nuke taldearen izaeran nabaritzen dela. Lizarrako jendea pix-

ka bat axolagabea da eta taldea ere bai. Norbere buruaz barre egiten duen jendea, agian garrantzitsuak diren gauzei garrantzirik ematen ez diona...

Imanol: Eta, bestalde, Lizarrak ematen dituen aukerei dagokionez... Musikari gehienok uste dugu aukera gutxi daudela, eta nire ustez, hein batean, hori ongi datorkio musikari: geroz eta aukera gutxiago, orduan eta gogo gehiago gauzak egiteko.

Eta zuek zer ematen diozue Lizarrari?

Imanol: Titularrak [barrezka hasi dira denak]. Ez, ba gugandik hurbil dagoen jendeari ematen dizkiogu momentu barragarriak, poztasuna gauetan, parran-

dan ateratzen direnean nabari da pixka bat musika ezberdina entzuten dela...

Julen: Eta esaten genuena, letretan Lizarrako gauzetaz ari garenez, zure herriaz ari den kantu bat entzuten baduzu, beti egiten dizu grazia gehiago. [Mikel] Beltzak esaten duen bezala, ez diogulako ere buelta handirik ematen esaten dugunari. *Berri*-ra (Lizarrako taberna) joateari buruz idazten dugu, adibidez.

Mikel: Nik segurtasun falta edo beldur bat nuen hasieran... Ijitoei ez zitzaie gustatuko ijito ez diren batzuek runba egitea. Eta hasiera-hasieratik poz-pozik egon dira, kontzertu guztietara etortzen dira, askotan esan digute gauzak elkarrekin egiteko.



Azkenaldian gertatzen ari da: musika talde berri bat sortu, eta hortik egun gutxi batzuetara jarraitzaile saldo bat eta kontzertu batzuk lotuta ditu. Zuekin ere pasa da. Nola da posible?

Julen: Jendearen irizpide falta [barrez].
Imanol: Nire ustez da ezagutzen ditugun kasuak direlako. Zeren egongo dira talde asko duela hamar-hamabost urte hasitakoak eta ez direnak hain ezagunak. Sinpleki da zuk ezagutzen dituzulako ezagutarazi dizkizutenak.

Eta zergatik zarete zuek horietakoa?

Imanol: Gure izaeragatik, agian. Musikkak leku garrantzitsua hartzen du, baina beste alde batetik guk egin genuena zerbait desberdina zen: hamabost pertsona runba jotzen eta nahi duguna egiten. Ez genuen proiektua abiarazi petatzeko.

Mikel: Gure kulturaren, runba entzun izan dudanetan txosnetan, beti izan da bakar-lari bat gitarrarekin. Gure kasua ikustean harritzen zaitu hamapiko tipo ikusteak, piano, haize eta guzti. Pandemia izateak ere eragina izan zuen, jendeak nahi zuen etxetik atera, parranda... Eta gure musika estiloak badu zerikusia horrekin.

Julen: Eta nik uste ere justu taldea sortu genuen momentuan harrera handia zegoela estilo horrekiko estatu mailan: C Tanganak *El Madrileño* atera zuen, Omar Montes ere martxan jarri zen...

Hamabost pertsona edo hamabost gizonezko (Amets Aznarezen salbuespenarekin)?

Imanol: Bai, hamabost gizon.

Eta hori?

Imanol: Hitz egin izan dugu horretaz, baina listo, ezin dugu ezer egin. Saiatu ginen, etorri zen Andrea probatzera, baina Lizarratik joan zen gero eta hor gelditu zen kontua. Gauzak horrela dira, naturalak. Ez dugu Lizarra edo Iruñea inguruan flamenkoa kantatzea gustatzen zaion eta ongi egiten duen neskarik ezagutzen. Ez dugu probatu, baina ez ditugu atek itxita.

Mikel: Lagun talde bat izan da, finean.

Norendako egiten duzue musika?

Julen: Uste dut ez dugula asko pentsatu, ezta? [barrezka]

Imanol: Ez, batere ez...

Uste duzue jendeak hartzen zaituztetela zuek zeuen buruak baino serioago?

Imanol: Bai, askoz ere gehiago.

Mikel: Diskoa egiterakoan pila bat na-

“ ”

*Ikusten da zeintzuk
diren Lizarran
lehtasunak: baloikada
leihoan eta segituan
udaltzainak*

baritu zen. Esan zuten atera genituela Miles Davisen disko bateko *sample*-ak.

Julen: Eta Miles Davis hori ni nintzen etxean tronpeta jotzen. Irakurketa batzuk *super guapo*, baina ez dugu horretan batere pentsatu.

Hori pasa zen agian Chill Mafia-rekin ere, ezta?

Julen: Gurea ez da hain mediatikoa, baina bai. Ongi pasatzeko egiten dugu musika, gustuko dugulako, pretentsio handirik gabe.

Imanol: Daukagunarekin egin dezakegu zerbait. Nik gaur egin ditut makarroiak haragi xehatuarekin.

Julen: Makarroiak eta haragi xehatua zenituelako.

Imanol: Baina irakurketa horiek dira Arzak etorri eta ez dakit zeren emultsioa egin dudala esaten hasiko balitz bezala.

Uste duzue bereziki Euskal Herrian dagoela joera hori? Denari dituenak baino geruza gehiago topatzekoa, duena baino sakontasun handiagoa bilatzekoa...

Imanol: Bai, konplexuz beteta gaudelako, ezta? Chauvinismo hori ere badago. Batzuek pentsatzen dute “hau nire herrian egin denez segur aski edukiko du kutsu serio bat”. Edo gazteriaren inguruko “analisi kritiko oso interesgarriak” egin nahi direlako. Zaharra bazara ez

“ ”

*Udaletxea erre behar
dugula dioen kantutik
bat entzun eta benetan
udaletxea erre nahi
dugula ulertzen duena
ez dago burutik sano*

duzu gazteriaren bizimodua ulertuko gazteriak ulertzen duen bezala; niri ere pasatzen ari zait.

Mikel: Eta horrek ere ekartzen du jendeak gauza desberdinak egin nahi izatea bortxaz, eta oso *kutre* geratzen da.

Julen: Euskal Herrian hainbeste intelektual dago, tartean, dirua dagoelako. Zure kezkek baldin badira Espainiako beste toki batzuetakoak, ba...

Imanol: Zuk ez dituzu ezagutzen Murtziako edo Albaceteko giro musikalak. Haien prentsa ez da hona iristen; gurea hara gehiago... Bueno, agian flipatuta gaude [barrezka].

Baina zer pintatzen du hemen Murtziak?

Imanol: Ba pentsatzen dugula gure eszena *la ostia* dela, baina ez ditugu beste zonalde batzuetako eszenak ezagutzen. Agian Murtzian oso garrantzitsua den zerbait ari dira egiten, baina ez daude sei egunkari kantutik horien inguruko analisiak idazteko. Edo beraiek ez dute pentsatzen haien taldeak kristorenak direnik. Umilagoak dira, gazteek musika egiten dute eta listo. Guk hemen ematen diogu aura berezi bat... Ez dakit, agian historikoki hau ere zonalde potentea izan delako musikari dagokionez.
Julen: Artearen inguruko intelektualismo hori nik uste hemen dela beste toki batzuetan baino ohikoagoa, dirua dagoelako.

Bakarrik dirua dagoelako?

Julen: Bakarrik horregatik ez. Eta badaikit zer esan nahi duzun, eta horrekin ere ados nago. Esan nahi dudana da kulturalki hemen pausu bat aurrerago goazela, diru gehiago egon delako historikoki.
Mikel: Igual badago kexatzeko gogo gehiago ere.

Runba fusioa egiten duzuela irakurri dut. Zergatik hori eta ez beste zerbait?

Imanol: Kaxoi bat erosi zidaten, gitarra lehendik geneukan eta horrekin hasi ginen. Runbaren konpasa ikasi nuen aste-betean eta horrekin aurrera.

Julen: Kasualitatea, ez dakit, kaxoi baten orde guiro bat oparitu izan balizute [Imanol begira dio], kumbia egiten egongo ginateteke.

Imanol: Gure izaerarekin bat zetorren ere bai. Nik festan ateratzeko dudak moduarekin dator bat egiten duguna. Ez zait gustatzen taberna batean reggaetoia entzuten egotea, nahiago dut kanpoan egon hizketan, edo gitarra batekin kantuan.

Ikusten duzue egiten duzuenak politikoki eragina izan dezakeenik?

Imanol: Bai, lortu dezake ezohiko udal-pleno bat deitua izatea kantua argitaratu eta hiru ordotara [barrezka].

Esan nahi dut, funtzio hori du zuen arteak? Mailu bat da?

Imanol: Nire ustez funtzio hori badu, baina guk ez dugu mailu bat izan nahi. Hori baino gehiago izatea espero dut, edo gutxiago, baina ez mailu bat [barrezka]. Egiten duguna baino gehiago, egiteko modua izan daiteke; beste erreminta bat erreminta kutxan.

Mikel: Nik uste kontatzen dugula gure errealitatea eta horren barruan daudela gure kezka politikoak.

Julen: Ados gauden gauzen alde agertzen gara, dirua ateratzeko bada, adibidez...

Imanol: Eta langileak garela, gure lokala egin dugula. Denok daukagu beste lan bat, eta asteburuetan orduak ematen ditugu honetan. Ni goizeko 5:00etan etortzen naizenean Txarro-rekin dena deskargatzera langile gisa ikusten dut nire burua, ez abeslari gisa.

Ezin galdetu gabe utzi: zer pasa da Lizarrako jaietan?

Imanol: Lizarrako txosnak 28 urtez egon dira leku zentriko batean. Guk txosnekiko beti izan dugu miresmena, txosnak izan direlako lehen aldiz jotzeko lekua, oholza handi batean eta soinu ekipo duinarekin. Lizarrako taldeek beti izan dute lekua hori eta hori guretzat sekulakoa izan da. Aurtentzen hortik nahi zituzten kendu...

Mikel: Desager zitezela zen helburua, beste leku batera eramatearena ez zela-

ko bideragarria.

Julen: Aitzakia izan da tabernentzat kompetentzia "desleiala" zirela, eta barrakak ondoan egonda txosnak ez zirela eredu ona haurrentzat.

Imanol: Baina alkatea egon daiteke bere semearekin bingoan jolasten. Bi pertsona mota daude: txosnekin ados daudenak (tabernari gehienak) eta berdinduzkoak. La Bota peñari ere ez zioten utzi barraka [barraka deitzen zaio txosnari Nafarroa Garaiko zenbait herritan] jartzen, jubilatuei kendu zieten 350 euroko diru-laguntza Chuchín Ibañez ez ekartzeko... Eta horrelako asko eta asko.

Julen: Urtean zehar ere gaztetxearekin mobida handiak egon dira. Jarri dizkio-te 20.000 euro baino gehiagoko isunak, identifikazio pila bat egon dira... Polizia ere kristoren errepresioa ari da egiten.



Eta horren guztiaren erdian, beef bat.

Imanol: Bai. Jaiak hastekoak ziren eta ikusten ari ginen instituzionalki inori ez zitzaiola inporta gu txosnarik gabe gertzea, ezta prentsari ere. Festak hasi baino bi egun lehenago elkartu ginen, eta hirulau ordutan egin genuen dena.

Mikel: Erreakzio bat izan zen, erasoaren salaketa modu bat. Nik horrela ulertzen dut.

Imanol: Biharamunean ez-ohiko bilkura deitu zuten. Han egon ziren ordubetez, eta inork ez zituen “adierazpen askatasun” hitzak esan. Denek kondenuatu zuten letra, alderdi guztiak.

Julen: Hartu zuten UPNren bertsioa eta erosi zuten ezer galdetu gabe.

Imanol: Abeslaria atxilotu eta deklaratzera deitu zuten gero. Eta horren ondotik mobida mediatiko guztia. Gu hiruroi eta baxu-joleari deitu gintuzten, ez genuen deklaratu, eta orain arte. Aurreikusten dugu auzia aurrera eramango dutela, eta listo, ez dakigu gehiago.

Mikel: Hortik aparte: egon da jende bat ez duena kantuaren mezua edo tonua ulertu. Udaletxea erre behar dugula dioen kantu bat entzun eta benetan udaletxea erre nahi dugula ulertzen duena ez dago burutik sano. Beste kode batzuk dira, baina ematen du batzuk ez direla oroitzen haiek Los Huajalotes, Cicatriz edo Eskorbuto entzuten zituztela.

Julen: Bizi gara zuzentasun politikoa-
ren garaian eta *beef*-aren kultura ez da ulertzen.

Zein eragin izan du horrek denak taldean?

Imanol: Nahiko handia. Ikusten baduzu kide batek egoera ez daramala oso ongi, zuk ere sentitzen duzu hor egon behar duzula, nahiz eta ez pentsatu judizialki sala daitekeen ezereen errudun garenik. Baina izan da egun batean esnatu eta hamar egunkari gure inguruan hizketan ikustea.

Julen: Eta Lizarran, herria izanda, dena zabaltzen da azkarrago; ezagutzen duzu alkatearen laguna den norbait, familia-
ren kezkak...

Mikel: Dena den, ez da izan gure aurkako eraso. UPNren *modus operandi*-a da, herri mugimenduaren aurka beti. Chula Potrari pasa zitzaion, Iruñeko Herriko Tabernari ere bai... Bestetik, honek taldea batu du eta erakutsi digu elkarrekin bagaude errazago dela.

Imanol: Flipantea iruditzen zaiguna da muntatzen ari diren pelikula. Eta hau dena izan daiteke ez dutelako kultur munduko inor haien alde lerratuta. Zer dute? Bi jo-

tero eta pare bat torero? Hori jendeari ez zaio gustatzen.

[Haur batek plazako leiho bat jo du balaioz bost minutu lehenago. Leihora atera den emakumezkoak Polizia deituko zuela esan du eta udaltzainak agertu berri dira]

Imanol: Bueno, ikusten da Lizarran zeintzuk diren lehentasunak: baloikada bat leihoan eta segituan udaltzainak.

Elkartasun mezu asko ere jasoko zenituzten.

Mikel: *Sobrau*.

Julen: Itziar Ituño bera ere agertu zen Bilboko Aste Nagusiko txupinazoan, Lizarrako txosnen alde.

Imanol: Politena izan da Lizarrako txosnetako arduradunak edota gaztetxeko gazteak hurbildu zaizkigula eskerrak ematera eta esatera haiek manifen bidez bi hilabetetan lortu ez zutena lortu genuela guk kantu batekin: osoko bilkura bat txosnen inguruan hitz egiteko eta kontua prentsan agertzea.

Julen: Herriko jende gehienak ere helarazi digu bere babesa. Esaterako, nere bizilagunak, ez dagoena politikoki bereziki gure alde lerratua, etxeko ate parean utzi zizkidan jaietako lehenengo egunean xanpain botila bat eta pasta batzuk, eta papertxo bat ondoan: “Udaletxe honen zapore mikatza pixka bat gozatzeko, topera zurekin” [gaztelaniaz]. ●






Bertso-zopa

Osatu Maddalen Arzellusek 2022an Markina-Xemeinen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*. Gaia: Duela gutxi futbolari bat sexu abusuengatik kartzelan sartu zuten. Gerora titular hau irakurri nuen nik. "Santi Minaren ibilbidea suntsitu zuen gaua".

Nahiz ta askotan aitzaki hartu
alkoholaren gora-beherak
_____ ta burua nahasten diguten
iluntzeak ta _____
hori entzunda nere burura
etortzen dira _____
etortzen zaizkit zergati asko
ta etortzen zaizkit zebak
gauak ez zuen ezer _____
dena hondatu du _____.

Baina _____ nahasgarria
da oso kazetaritza
ta ongi ustez haien lumekin
zirriborroka _____
iruditzen zait titular hori
okerra eta _____.
Zer hondatu da? Zer hondatu da?
Ba, gizartearen hitza
ta batez ere hondatu zuen
neskatilaren _____.

Baina gizonak badauka hitza
eta gizonak _____
berak jartzen du gizarte hontan
nahi duen lekuan _____
eta ondoan alperrik bada
_____ marmarra
iruditzen zait gure mundua
dagola _____ xamarra
ta gizartea dela erabat
hondatu dugun _____.



D A Z L A Z X S A R R A S S S
E M A K U M E E N O G I G O M
U A G E D A P O T D R E A K Z
D A B I L T Z A N J A F L J J
T B A K A R R A A Z E G D Z U
X R R A G U G I T H D K E I T
B L P U Z O R I O I M P R A N
R L X T N R Z D K H Z P A O M
O K A A S I N F S G K I K K I
Z A G D B I G D A M K M H S H
G R I N K A D N O A G U I A D
P E Z O F R A J R A R R A M N
U P I H H A K E G E J L F P T
J Z O D I R B F I N D A R R A
B E R B O R T I T Z A X K D N
O B O P A J O M A N T A R P I

Sudoku

ERRAZA

8	9		3	6	7	4		
	6	7	4	5	1	2		
4	1				2		3	7
				4	6			2
	7	3	1	9		8	4	6
		6		3	8	1	7	
			5		4			
6		4					2	1
7		1	6			5	8	4

ZAILA

		4						5
	1		9			4		
				3		7	8	
	7		6				4	
4				2		5		
		1	5					9
	7			9	3			4
		9					1	2
3				5				9

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



(Bizkaian). **8.** Begirune. | Palestinako lur zerrenda.

GOITIK BEHERA:

1. Sakristaia. | 2. Ondoan. **3.** Astuna ez dena. | Osasunaren Mundu Erakundea.
4. Abantzu, kasik. | Zuberoako mendatea.
5. Zatitxo. **6.** Arabako mendia, Gipuzkoako mugan. | Magnesioaren ikurra. **7.** Musu. | Helburua, xedea. **8.** Idazteko lapitz.
- 9.** Argazkiko udallerria.

EZKER-ESKUIN:

1. Sententzia. | Apaiz. **2.** Daratulu, bizkaieraz. **3.** Inguuru. | Haur oihal. **4.** Zein kopuru. | Radonaren ikurra. **5.** Aipaturiko artikulu (laburdura). | Biharkoaren hurrengo egunerako. **6.** Nehola. | Torturaren Aurkako Taldea. **7.** Maltzur, amarrutsu

EBAZPENAK

Nahiz ta askotan aitzaki hartu/alkoholaren gora-beherak/nahiz ta burua nahasten diguten/iluntzeak ta beherak/hori entzunda nere burura/etortzen dira gaderak/etortzen zaizkit zergati asko/ta etortzen zaizkit zebak/gauak ez zuen ezer hondatu/dena hondatu du berak./Baina askotan nahasgarria/da oso kazetaritza/ta ongi ustez haien lumekin/zirriborroka dabiltza/iruditzen zait titular hori/okerra eta hortitza./Zer hondatu zuen/neskatilaren bizitza./Baina gizonak badauka hitza/eta gizonak indarra/berak jartzen du gizarte hontan/nahi duen lekuan marmarra/eta ondoan alperrik bada/emakumeen marmarra/iruditzen zait gure mundua/dagola baldi xamarra/ta gizartea dela erabat/hondatu dugun bakarra.

7	6	9	4	2	2	5	4	6	7
5	4	9	7	6	8	3	1	2	
6	2	7	1	9	3	8	5	4	
3	8	1	5	4	7	2	6	9	
4	6	3	2	2	1	5	7	8	
2	7	5	6	8	6	6	7	8	
9	5	2	4	3	4	3	7	1	
8	1	3	6	7	5	4	2	6	
7	6	4	8	1	2	9	3	5	

ZAILA

7	3	1	6	2	9	2	1	4	1
6	5	4	8	7	3	9	2	1	
9	2	8	5	1	4	7	6	3	
5	4	6	2	3	8	1	7	9	
2	7	1	3	9	5	8	4	6	
1	8	9	7	4	6	3	5	2	
4	1	5	9	8	2	6	3	7	
3	6	7	4	5	1	2	9	8	
8	9	2	3	6	7	4	1	5	

ERRAZA

8	2	1	3	5	4	6	7	9	
7	6	9	2	3	8	1	5	4	
5	4	8	7	3	9	2	1		
9	2	8	5	1	4	7	6	3	
5	4	6	2	3	8	1	7	9	
2	7	1	3	9	5	8	4	6	
1	8	9	7	4	6	3	5	2	
4	1	5	9	8	2	6	3	7	
3	6	7	4	5	1	2	9	8	
8	9	2	3	6	7	4	1	5	

- ZORNOTZA.
MG, 7, POR, ITUA, 8, ARKATZ, 9.
1A, BEAI, 5, TXIPI, 6, ARATZ.
2, PAREAN, 3, ARIN, OME, 4.
GOITIK BEHERA: 1, ELIZAINA,
ADEI, GAZA.
INOLA, 7, MALMUTZ, 8.
ZENBAT, RN, 5, AA, ETZIKO, 6.
2, LABATRO, 3, IRI, XITARI, 4.
ESKER-ESKUIN: 1, EPAL, APEZ,



LIBURUA

Ez da gerra onik



DOMESTIKA

SOKA-TIRA

TESTUA: ILAN BRENMAN
ILUSTRAZIOAK: GUILHERME
KARSTEN

ITZULPENEA: IPAR ALKAIN

DENONARTEAN, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Album honen bukaeran bada Benjamin Franklinen aipu bat: “Sekula ez da izan gerra onik, ezta bake txarrik ere”. Eta, hain zuzen, gerraren zentzugabekeriak ari zaigu bi egile brasildarrek eginiko liburu hau; gai serioa da, baina umore tonuan kontatua.

Azalak eta kontrazalak irudi bat osatzen dute, bi txakur saltxitxa korda batetik tiraka. Azalean txakur handia dugu, amorrutik tiraka; kontrazalean, aldiz, txiki marroi bat haserre indar egiten. Eta saltxitxa korda hori dugu istorio honetako elementu garrantzitsuenetariko bat. Kredituen orrian eta izenburua agertzen den orrien artean kokatuta ikusiko dugu lehen aldiz, bi orrien artean, orrien mugak kordaren erdia markatzen duela. Ondorengo orrietan bi txakurrak ikusiko


ditugu, bakoitza orrien alde banatik hurbiltzen, ondoren saltxitxa kordari heltzen, tiraka, gero txakurren jabeak hauei laguntzen tira egiten, pertsona batzuk gehituko zaizkie bi jabe horiei... harik eta saltxitxa kordaren alde bakoitzean jende multzo bana tiraka egon arte.

Bi txakurren arteko eztabaida izan dena pertsona askoren arteko enfrentamendua bilakatuta ikusiko dugu. Eta eztabaida, “gerra da hau”, une gorenean dagoenean katu bat agertzen da, eta txakurrak haren atzetik irtengo dira korda askatuta eta pertsona guztiak airean bueltaka doazela.

Amaierak umore kutsua du, bi txakurrak elkarrekin jolasten eta pertsonak eztabaidaren zergatiaz galdezka. Baina umore hori amaieran egoteaz gain,

orri-orri ere handitzen doa; irudietan gehitzen ikusi ahal izango ditugu ezagunak zaizkigun pertsonaiak; era askotakoak (hiru txerrikoak, Peter Pan, Aita Santua, Edurnezuri... baina baita Maradona eta Pelé futbolariak, astronauta bat, urpekari bat, eta abar), gertakari eta istorio askori erreferentzia egiten dietenak eta nahiko xeble agertzen zaizkigunak istorio honetan.

Ilan Brenman ezagutzen genuen *Printzesek ere puzker egiten dute* (Algar, 2017) albumagatik eta Guilherme Karsten, aldiz, *Auto-stopean* (Pamiela, 2021) edo *Munstroa al zara?* (Ibaizabal, 2022) lanengatik, besteak beste; orain, aldiz, oso lan polita, dibertigarria eta, aldi berean, kontu serioez ari zaigun obra umoretsua eskaini digute elkarrekin. ●



MUSIKA

Gure pianista unibertsala



EUSKALDUNA JAUREGIA

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ezinezkoa zen Columbus Fundazioak antolatutako kontzertu solidariora joateari uko egitea. Gaixotasun ultra-arraroak ikertzeko lan egiten duen fundazioa izanik, garrantzitsua da horrelako ekimenak babestea. Eta, eszenatokian Joaquín Achúcarro bezalako musikaria badugu, pizgarria izugarria da.

91 urterekin (azaroaren 1ean 92 bete-ko ditu), Achúcarrok betiko pianista karismatikoa izaten jarraitzen du, dotorea fraseoan, apala, orkestrarekin bat egiten duena edertasun handiko osotasuna sortzeko. Achúcarro ispilua da, denok begiratu nahiko genukeena. Adin horretan, gaitasun betez, atsedetik gabe lan egitea... jende guztiak ez du opari hori bizitzan. Oinez ibiltzeko erabiltzen duen makilagatik ez balitz, askoz ere gazteagoa zela esan genezake.

Bilbao Orkestra Sinfonikoak, Ramón Tebar-en batutapean, programa zoragarria interpretatu zuen. Guridiren *El*

Casero-ren Preludioarekin hasi ziren. Interpretazioa leuna eta arina izan zen. Zuzendariak ederki eraman zuen partituraren erritmo markatua.

Ondoren, Edvard Griegen *Pianorako kontzertua, la minorrean op. 16* entzun genuen, piano-errepertorioko kontzertu eder eta ezagunenetakoa. Norvegiako kutsua duen kontzertu bat da, Eskandinaviako folkloreaken erreferentzia askorekin. Pianoak une asko ditu bere ezaugarri liriko eta birtuosistikoak erakusteko, kadentzia bikainarekin eta pasarte ederrekin. Achúcarrok, ezin dotoreago, erraztasun handiz egin zien aurre partituraren zailtasun itzel guztiei. Agian indar gutxiagorekin entzun genion, baina pultsazio-fintasun handiarekin, zalantzarik gabe, soinu-bolumenaren galera konpentsatuta. Pozgarria izan zen bere eskuetan *Adagio* entzutea, hain intimista eta ameslaria. Hirugarren mugimendu-

FITXA

Columbus Fundazioak antolatutako kontzertua, 'RenHacer' Musikaldiaren barruan.

Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Ramón Tebar.

Bakarlarria: Joaquín Achúcarro.

Egitaraua: Guridi, Grieg eta Brahmsen lanak.

Lekua: Bilboko Euskalduna Jauregia.

Data: irailaren 13a.

ko protagonista den dantza herrikoia graziaz eta bizitasunez iritsi zitzaigun eta, gainera, txalo zaparradaren aurrean, Achúcarrok Griegen pieza lirikoetako bat oparitu zigun, ñabarduraz betea.

Bigarren zatian BOSek Brahmsen *4. Sinfonia mi minorrean op.98* interpretatu zuen. Brahmsen obrak musikaren historian sinfoniaren garapenaren puntu gorena dira. Genero horren sendotasun eta gailurra adierazten dute hizkuntza erromantikoa. Laugarren sinfonia berezia da, ordura arte konposatutako obra emozionalenetakoa. Nostalgia-ez-tanda. Esango nuke lehen mugimendua- ren lehen tema, urratzen duen iluntasunarekin, garai guztietako errepertorio sinfonikoaren gairik ederrena dela. Bertio erromantikoa izan zen, gehiegikeriarik gabea, lasaia, eta orkestrak garbi eta seguru luzitu zuen une oro.

Kontzertu on bat kausa on baterako. ●

Edalontzi hautsien amorrazioa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Argazkilari trakets samarrak garenok eta dokumentalgile gisa lau kantoiko euroak baino gutxiago balio dugunok, koadernoan eta boligrafoan aurkitzen dugu kontsolamendua, han erregistratu baititzakegu begien aurretik pasatzen zaizkigun momentu errepikaezinak. Bai, errepikaezinak: dena oso azkar pasatzen ari zaigu, garrantzirik ez balu bezala; baina gutxien espero duzunean daukazu hor, zure muturren aurrean, gorde behar den zerbait, betirako galduko dena, zuk idatziz jasotzen ez baduzu. Bukatzen ari zaidan paperezko grabagailuan aurkitu dudana iazko eszena hau, adibidez:

“Kristal hautsi pila baten hotsa entzun da Okendo kaleko izkinara iristean. Tabernako zerbitzariari bandeja osoa erori zaio lurrera. Ez. Bota egin diote. “*¡La puta puerta libre!*”, oihukatu dio, presaka pasatzen ari zen atean trabeska jarrita zegoen adineko gizon ondo jantziari, zeinak, itxura guztien arabera, okerreko unean eta lekuan egin duen mugimenduren bat, kuxidade hori probokatu duena. Zerbitzariari ez zaio haserrea azkar pasa, eroritakoa jaso, eta berriz ere mahaietara eraman behar zuena hutsetik prestatzen hasi denean “*el puto viejo, que me ha tirado todo*”, entzun du taberna guztiak, indiferentzia handi samarrez erreakzionatu duen “*el puto viejo*”-k barne.

Kasik harritu eta guzti egiten zara gaur egun horrelako kontuekin, ematen baitu formak beti gorde behar direla, haserrea ezkutatu, beste masaila jarri kristau zintzoen gisan. Eta bezeroari hitz txarrik ez, mesedez, nola ba. Bezeroak, gauza jakina denez, beti dauka arrazoa.

Baina gaur uztailleko egun bero samarra da, auskalo zenbat denbora daraman neska horrek lanean, auskalo zenbat aldiz jokatu duten hemendik pasa diren lumaje guztietako bezeroek bere pazientziarekin, auskalo bestela ere nola doakion bizitza:



alokairua igo ote dioten, zenbat; bikoteki-deak pasa den astean “denbora bat hartu” nahi duela esan ote dion, beti malaostian etxeratzen delako eta ez duelako horrela gehiago aguantatzen; auskalo gaurkoa bezalako lan egun bat zutik bukatzeko zenbat pilula hartzen dituen, nola daukan tentsioa, medikuak 50 urteko norbaiten osasuna daukala esan ote zion azkeneko errebisioan, oraindik 30 bete ez dituen arren; auskalo zer ikasi zuen, zein zen hezkuntza arautuaren burbuilan zegoen bitartean irudikatzen zuen ofizioa –txikitant denok gara mediku, suhiltzaile, abeslari famatu; gero jotzen dugu kaskarrekoa, etorri garen inguruak jarria zigun sabaia-rekin–; auskalo nola moldatzen den lankideekin –“eske borde bat zara”–; auskalo kontratupean dagoen, zenbat pagatzen dioten, uda pasa ondoren lanean jarraituko ote duen edo, hala ez bada, zenbatean geratuko zaion langabezia. Auskalo.

Edozein kasutan, bandejako botila katileu edalontziak lurrean lehertu zaizkionean, “*¡la puta puerta libre!*”, une batez

egia aurrez aurre ikusi izan banu bezala sentitu naiz: mundu hau pilatzen ari den amorrugu guztiaren printza batek derri-gorrezko mututasunaren oskola kras-katu izan balu bezala. Erreakzionatzeko modu hori ere desikasi behar dugula sartuko digute buruan halako batean, auskalo zein teoria guairen bidez. Baina momentuz, hor dago. Gaitzerdi”.

Apunte hori idatzi nuen arratsalde hartan, beste askotan bezala, autobusa noiz iritsiko zain nengoen kafe bat hartzen, Donostiako Tanger tabernan. Laster ez dut hori egiteko aukerarik izango, itxi egingo baitute, hiri osoa kartoi-harritzko dekoratu bihurtzen tematuta dagoen dinamika ekonomiko-politikoaren irizpideei jarraituz. Eta betidaniko tabernen galeragatik lantu nostalgikoa jotzen gera gaitetzke, noski. Baina iruditzen zait, gure oroitzapenen lekuak behin eta berriz hankapean kriski-kraska ikustearen ikustez, Tangerreko langilearen amorratio hura erabiltzeko lizentzia ere badugula honezkero. ●



euskarabildua

TEKNOLOGIA · BURUJABETZA



#13

Artifiziala ez den *teknologia*

Urriaren 17an · 09:00etan · San Telmo museoan (Donostia)

izena eman www.euskarabildua.eus



EKARRIZKETA

BAT

CHILLIDA

ETA ARTEAK

Erakusketa
2024-06-08
San Telmo Museoa

www.santelmomuseoa.eus



EDUARDO
CHILLIDA
100 URTE

1950-1970

Antolatzailea:



Erakunde babesleak:

